

# KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2019ko urria / 298. zenbakia

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)  



## HERRITIK HERRIARENTZAT

Talde-lanaren eredu dugu Herri Eguna, herritar askorentzako jai egun kuttuna

# etorkizuneko softwarea

OÑATIN EGINA



MAGNET

[magnet.coop](http://magnet.coop)

[info@magnet.coop](mailto:info@magnet.coop)



# Elkartasun ekimen ilusionagarria

- » Antxintxika Triatloi Taldeak 'Triatloi Egokituko Saila' sortu du.
- » Joseba Azkarate oñatiarrarentzat **handbike** bat erostea da lehen helburua, eta horretan laguntzeko zozketa bat antolatu du

Debagoieneko Antxintxika Triatloi Taldeak 19 urteko ibilbidea egin du jada, eta urte horietan guztietan bi helburu nagusi izan ditu: adin guztietako herritarrak kirola egitera bultzatzea, eta, batez ere, triatloi osasuntsua ezagutzera ematea bailara osoan. Ildo horretan, proba ezberdinak antolatu ohi ditu, hala nola, gaztetxoentzako triatloia eta Soraluze-Bergara lasterketa herrikoia. Azken honetan, patinatzaileek eta gurpil-aulkidunek ere parte hartzen dute korrikalariekin batera.

## PROIEKTU ETA ERRONKA BERRIA

Kirola ahalik eta eremu zabalenera zabaltzeko ahalegin horretan, Antxintxika taldeak proiektu berri bat martxan jartzea erabaki du. "Proiektu eta erronka ilusionagarria" taldeko kideek adierazi dutenez.

2017ko azaroan, Joseba Azkarate oñatiarrak auto istripua izan zuen eta ondorio larriak utzi zizkion (gerritik beherako paraplejia). Urtebetez Toledon, Madrilan eta Aita Meni zentroan errehabilitazio lan gogorra egin eta gero, bere kabuz lanarekin aurrera egiteko ordua heldu zaio. Kirolari sutsua izanik, Joseba zenbait kirol praktikatzeko hasi da, eta aurrera egiteko duen gogoia ikusita, Antxintxika taldeak laguntzea erabaki du, batez ere, bere osasunean eragin dezakeen aurrerapena eta hobekuntzan laguntzeko helburuarekin.

## ZOZKETA SOLIDARIOA

Proiektu hau abian jartzeko, triatloia praktikatzeko *handbike* edo gurpil-aulkia erosi nahi du Antxintxika taldeak. Ezaugarri bereziak dituen gurpil-aulkia da eta 11.000 euro balio ditu. Antxintxika taldeak gaur egun dituen baliabide ekonomikoekin ezin dio gastu horri aurre egin eta, beraz, zozketa bat jarri dute martxan. Gabonak bitartean inguruko enpresa, denda, jatetxe eta erakundeetara joko dute laguntza eske, eta jasotzen ari diren produktuekin opari-sorta bereziak prestatuko dituzte, urtarilaren 6an zozketatzeko. Bien bitartean boletoak saltzen ibiliko dira herriz herri, Oñatin hasita. Larunbatean (urriak 5, Herri Eguna) postu bat jarriko dute herriko plaza inguruan, ekimenaren berri eman eta boletoak (2€) saltzeko. ■

**Herri Egunean mahai bat ipiniko dute  
Oñatiko plaza inguruan, ekimenaren berri  
eman eta boletoak saltzen hasteko**



Utzitako handbike batekin egiten dituen entrenamendu saioak Josebak, baina laster itzuli egin behar du aulkia

# Baserriak eta herriak bat egiten duten egun handia

# HERRI EGUNA

Herriko jaietako egun kuttunena da herritar askorentzat. Nekazarien elkarteko kideak arduratzen dira goiz parteko azoka antolatzeaz.



## KONTUZ

Eguerdiko 14:00etatik aurrera, ganadua erretiratzen hasten diren garaian, kontu handiz ibiltzeko deia luzatzen zaie herritarrei, segurtasun tartea zainduz, okerrik gerta ez dadin.

## DATUAK



## 30 bat lagun ibiltzen dira goizeko feria antolatzen

Goizeko azoka, artisau erakusketa, talo taberna, sagardo dastaketa, herri kirolak... jai egun bete-betea izan ohi da Herri Eguna. Jaietako egunik kuttunena, herritar askorentzat. Baina askotan ez dugu behar beste baloratzen ekitaldi horiek guztiak antolatu ahal izateko hainbat herritarrek egiten duten lana.

Nekazarien elkarteko kideak, esaterako, goiz parteko ganadu, barazki, fruta eta gazta erakusketa-lehiaketak antolatzeaz arduratzen dira. "San Isidro jaiak pasa orduko, ekainean hasten gara lanean, aurreko urteko datuak aztertu eta udaletxean aurkeztu beharreko txostena prestatzen" adierazi digu Patxi Barrenak. Iraila hasieran dokumentazioa banatzen diete herriko baserriarrei, Herri Eguneko azokan parte hartzeko baldintzen berri emanez (kopuruak, dietak...) eta gonbita luzatuz.

Herri Egunaren bezperetan azoka lekua

prestatzen dute, eskortak ipini eta zerrautsa zabalduz, besteak beste. Eta egunean bertan goizeko 6etan batzen dira elkartean, gosaldutik lanean hasteko. Luis M<sup>a</sup> Lizarralde Iruatz-ek koordinatzen ditu ganadua azoka lekura ekartzeko lanak, eta hamarretarako dena prest egoten da. Ganaduren garraio lana ahalik eta baldintza egokienetan egiten saiatzen dira.



**PATXI BARRENA**

Nekazarien elkarteko kidea

Guztira, 30 bat lagun ibiltzen dira lanean: elkarteko juntako kideak 18 (aurtengoak juntuak) eta garraiolariak. "Lan eta mugimendu handiko eguna izaten da guretzat, kontuan hartuta, gainera, soziedadean salda ere eman behar izaten dugula, baina elkarteak onartuta dauka, eta saiatzen gara aurrera ateratzen giro onean".

Herri Eguneko azokak 22.000 € inguruko aurrekontua dauka (dietak, sariak, garraioa...) eta udalak hartzen du bere gain. ■

### • GANADUA

Aurtengo Herri Egunean behiak (31), behorrak (32), zaldiak (2), poniak (12), astoak (13) ardiak (9 lote), oiloak eta txitak (4 lote), ahuntzak eta txerri bat kumeekin ikusiko ditugu. Denak Oñatikoak, txerria izan ezik.

### • BARAZKI ETA FRUTAK

Lau barazki sorta eta fruta sorta bat egongo dira aurrean

### • GAZTA LEHIAKETA

Herriko 18-20 gaztagilek parte hartuko dute







## 3.000 talo egiteko gertu

Ezker Abertzaleko lantaldeak izango du aurten ere herri tabernaren ardura, 18. urtez jarraian. Uztailean hasten dira antolatzen. Udalak urtero egiten duen deialdira aurkeztu eta jeneroa (txorizoak, hirugiharra...) enkargatzen dute. Urtero lez, 1.600 txorizo, 100 kilo hirugihar eta 230 kilo irin erosi dituzte, eta prest daude aurten ere 3.000 bat talo egiteko. Bokadiloa nahiago duenarentzat baserriko opilak ere (180 bat) egongo dira aukeran. Edateko 400 bat litro sagardo, 100 litro ardo eta freskagarriak.

Goizeko 7etarako hasten dira lanean. Azpiegitura prestatu (mahaiak, plantxak, zartaginak...) eta 9etarako hasten dira talogintzan. Aurreneko taloak (70 bat) San Martin egoitzarako izaten dira, aspaldiko ohiturari eutsiz. Goizeko 10etatik aurrera hasten da jende-oldea hurbiltzen. "Azken urteotan jendea goizago dabilela ikusten dugu, eta horri esker geuk ere lehenago amaitzen ditugu lanak. Iaz, 14:30etarako dena batuta geneukan, eta beste batzuetan berriz, 16:00etan jasotzen ari ginen artean" azaldu digu Josu Erostarbek.

Orea edo masa egiten, eskuz kolpatu eta zabaltzen, sutan gorritzen, taberna zerbitzatzen... guztira 70 bat lagun ibiltzen dira lanean. Zorionez, ez zaie jenderik falta, eta eguna gogorra izaten bada ere, gogo onez eta giro onean egiten dute lan, herriaren alde. "Urte hauetan guztietan lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu, eta herritarrei gonbita luzatu, beste urte batez, Herri Egunez goza dezaten giro onean" esan digu Erostarbek. ■

## 25 sagardo dastagai

Oñatiko Sagardozale taldearen eskutik aurten ere Gipuzkoako 25 sagardotegitako uzta dastatzeko aukera izango dugu Herri Egunean. Sagar bilketa aurreratu egin da aurten, eta sagardogileak lanpetuta dabilta egun hauetan, baina, hala ere, ordezkaritza zabala egongo da Oñatin; tartean, iazko Gipuzkoako txapelketako hiru sarituak: *Zelaia*, *Zapiain* eta *Gaztañaga*.

Ohi bezala, eguerdiko 12:00etan hasiko da dastaketa, eta edalontzi bat (3€) eskuratuta sagardo desberdinak dastatzeko aukera egongo da. Denera, 2.000 bat litro ekarriko dituzte.

Oñatiko sagardo dastaketa 1986an antolatu zen lehen aldiz, eta Gipuzkoan antolatzen diren sagardo egunetan bigarren zaharrena da, Usurbilekoaren ondoren. ■

## Herri kirolen erakustaldia



Herri kirolaz gozatzeko aukera izango dugu aurten ere Herri Egunean, Foruen plazan.

Aurrena, herriko lau gazte talde ariko dira nor baino nor, lan ezberdinak egiten (sokatiran, kontrabandisten lasterketan, oskolak batzen, txingak eramaten eta zaku karreran)..

Arratsaldeko 17:00etan hasiko da gazteen saioa eta, ondoren, 18:00etan, profesionalen txanda izango da, goi mailako kirolariekin.

**Iñaxio Perurena** 111, 205 eta 280 kiloko harriekin ariko da. Bestalde, **Arria V** eta **Larretxea** aizkoran ariko dira, eta **Badaioz** sokatira taldeko 8 lagun (launa neska eta mutil) nor baino nor ariko dira sokatiran, trontzan eta ingudearekin. Ikuskizun ederra izango da.



**2.000 litro sagardo zerbitzatuko dira Herri Eguneko sagardo dastaketan**

# IBAI LAGUN

## VII. JARDUNALDIAK

» **Errekak** garbi mantentzearen garrantziaz kontzientzatzeari helburu duten jardunaldiak antolatu ditu Natur Eskolak, udalaren babesarekin

**E**rrekak eta, oro har, ur inguruneak garbi mantentzearen garrantziaz sentsibilizatu eta bioaniztasunaren ikuspegitik duten aberastasuna ezagutzera emateko asmoz, VII. Ibai Lagun Jardunaldiak antolatu ditu Oñatiko Natur Eskolak, udaleko Nekazaritza eta Ingurumen sailarekin elkarlanean. Egitarauan ikus daitekeen moduan, anfibioentzako putzu berri bat egokituko da, erreka garbiketa egingo da urtero bezala, eta irteera bat ere egingo da Arantzazuko errekaaren arroa eta Gesaltzako lizunaren ezaugarriak bertatik bertara ikusteko.

► **URRIAK 26, LARUNBATA (10:00, Foruen plazan)**

### Belatxaran anfibioentzako putzua prestatzeko auzolana



Iaz Olapoton egin bezala (ordukoa da goiko argazkia), anfibioentzako putzu berri bat (Olapotokoa baino txikiagoa) egokituko da aurten Belatxara inguruan, Ulma fundazioaren laguntzarekin. Halako putzuak oso garrantzitsuak dira anfibioentzat, bertan ugaltzen direlako, eta baita beste animalia urtar batzuentzat ere (burruntziak, sorgin orratzak...). Egun batzuk lehenago zuloa egingo da hondeamakina batekin, eta urriaren 26an kautxu eta geotextil geruzak ipini eta lurrez estaltzeko lanak egingo dira auzolanean. Goizeko 10etan da hitzordua Foruen plazan.

► **URRIAK 27, IGANDEA (9:00, Foruen plazan)**  
**Erreka garbiketa auzolanean**



Oñatiko erreken egoera asko hobetu da. Azken urteotan egin diren garbiketa saioetan hondakin tona asko atera dira eta gaur egun ez dago bereziki zikin dagoen gunerik. Hala ere, lantaldetan banatu eta errepauso bat egingo da, Ugarkaldetik Zubillagaraino. Gainera, azken urteetan bezala, arreta berezia jarriko da landare inbaditzaileak errotik atera eta frena ipintzeko. Amaieran luntxa egongo da parte hartzen duten guztientzat, eta herriko plazan ipiniko dira ikusgai batutako hondakinak eta landareak.



*Heliantus eta Crocosmia,*  
gure artean ugariak diren  
landare inbaditzaileak

**Amaia Igartua**  
**ARKITEKTURA ESTUDIOA**

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)  
-Ilgogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)  
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati

**JUANJE**  
**MARGOAK**

T. 627 818 247



► **AZAROAK 1, OSTIRALA (9:00 Foruen plazan)**

## 'Arantzazu erreken arroa eta Gesaltzako lizuna'. IRTEERA.



Iritegi erreka  
(Amaia  
Arzamendi  
Goitia)

Natur eskolako kideek gidatuta, ibilaldia egingo da Arantzazu errekan zehar, Iturrigorrin hasi eta Gesaltzaraino. Iritegiko iturburua, Okolako potoloa, Sorgin erreka eta Gesaltza-Arrikruz eremu karstikoko galeria ezberdinak (fossilak eta aktiboak) ikusteko aukera egongo da ibilaldian zehar. Higaduraren bidez urak inguruko paisaian eragindako egitura geomorfologiko ezberdinak (kobak, surgentziak, dolinak, lurpeko ur poltsa edo akuiferoak... aztertuko dira. Ibilaldia egoki antolatu ahal izateko aurrez izena ematea komeni da: 943716404 (Natur eskola).

► **URRIAK 30, ASTEAZKENA**

**Urriaren 30ean** (Kultura Etxean, 19:00) ura eta ibaien inguruko pelikula edo hitzaldi bat egongo da, Ibai Lagun jardunaldien baitan, baina zehazteke zegoen aldizkaria ixteko orduan.



## Abeltzainen eta otsoen arteko gatazkari buruzko dokumentala, Oñatin

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituen **Naturaldia** jardunaldien baitan, **'Barbacana, la huella del lobo'** dokumentala ikusi ahal izango dugu Oñatin, Natur Eskolaren eskutik.

Arturo Menorrek zuzenduta, abeltzainen eta otsoen arteko elkarbizitza eta gatazka jorratzen du 75 minutuko dokumentalak. Otso talde baten jarraipena egiten du mendikate ezberdinetan barrena, beraien egunerokoa erakutsiz.

**Azaroaren 5ean** izango da emanaldia, kultur etxean, 19:00etan, eta Arturo Menor zuzendaria bertan izango da. Dohainik izango da.

30 etxebizitza  
(2-3-4 logeekin)

San Martin gunean

egaratur  
Construcciones | Eraikuntza Lanak

Informazioa: 689 420 761

\* A5 etxebizitzari dagokion infografia

**MARIBEL PACHECO** / Iturrigorri Elkarlan elkarteak koordinatzailea

# "Hezur-muinaren transplantea da leuzemia edo odolaren beste gaitz batzuk dituzten pertsona askorentzako itxaropen bakarra"

Arrasateko Iturrigorri Elkarlan elkarteak gaixotasun hematologikoak dituzten pertsoneri laguntzen die. Kontzientziario lana ere egiten du, ohitura osasungarriak eta hezur-muinaren donazioa sustatuz, odoleko minbiziari aurre egiteko

Irailaren 21ean Oñatin egon zen Maribel Pacheco, gaixotasun hematologikoei buruz informatzen eta hezur-muinaren (*médula ósea*) donazioa sustatzen. Medikamentu, erradioterapia edo kimioterapia bidezko tratamenduek arrakastarik ez dutenean, hezur-muinaren transplantea egin behar izaten da. Tamalez, baina, hezur-muin emaile oso gutxi dago gure gizartean, eta Pachecok argi utzi nahi du hezur-muina ematea oso erraza eta segurua dela gaur egun, eta animatu egin nahi ditu herritarrak emaile egitera.

## Hezur-muinaren donazioa sustatzen duen elkarte ofizial bakarra zarete Euskadin. Noiz eta nola sortu zen Iturrigorri Elkarlan?

2007an sortu zen elkarteak, Arrasateko 4 urteko ume baten izan zuen leuzemiaren ondorioz. Ez zegoen emaile konpatible edo bateragarririk, eta lantaldea osatu genuen tramiteak azkartu eta ume harentzako emaile bateragarria aurkitzeko. Izugarritzko erantzuna jaso genuen herritarren aldetik eta, beraz, lanean jarraitzea erabaki genuen, leuzemia edota bestelako gaitz hematologikoren bat duten pertsoneri eta eta beraien senideei laguntzeko.

## Hezur-muinaren donazioa sustatzea da zuen helburuetako bat. Zergatik da beharrezkoa hezur-muin emaile egitea?

Minbizi hematologikoren bat (leuzemia, linfoma...) dugu-

nean tratamendu farmakologiko, erradioterapia edo kimioterapiaren bidez sendatzen saiatzen gara, baina ez badugu lortzen, orduan ama-zelulen transplantea egin behar da, eta hezur-muinak berebiziko garrantzia du, bertan produzitzen baitira odolaren zelula guztiak berritzeko gai diren ama-zelulak.

Kontua da, baina, hezur-muinaren transplantea egiteko, gaixoarekin bateragarria den emaile behar dela, eta aukera portzentaiak oso txikiak izaten dira (%30ekoa anai-arreben artean eta %5ekoa familiako artean). Familiako inor ez bada bateragarria, estatu mailako REDMOra (Registro Español de Donantes de Médula Osea) jotzen da emaile bila.

Genetikoki zenbat eta hurbilagoak izan, asko handitzen da emaile bateragarria aurkitzeko aukera. Horregatik, oso inportantea da

» **Medikamentu edo kimioterapia bidezko tratamenduek arrakastarik ez badute, hezur-muin transplantea da odoleko minbiziak sendatzeko azken aukera**

» **Osasuntsu dagoen 18 eta 40 urte arteko edozein pertsona izan daiteke hezur-muin emaile**

» **Hezur-muinaren donazioak ez dauka inolako arriskurik, kasurik gehienetan odolaren bidez ateratzen dira ama zelulak, aferesi izeneko teknika bidez, 3-4 ordutan**

erregistro horretan ahalik eta jende gehien egotea, horixe baita jende askorentzako sendabide bakarra, eta gutako edozein egon daiteke, bihar edo etzi, transplante beharrean.

## Ezjakintasunagatik izango da, baina jendea beldurtu egiten da hezur-muinaren donazioaz hitz egitean. Arriskutsua al da?

Hezur-muinaren donazioak ez dauka inolako arriskurik; ez da inoren bizitza arriskuan jartzen. Gaur egun, kasurik gehienetan (%85 inguru) odolaren bidez ateratzen dira ama-zelulak; 4-5 egun lehenago injekzio batzuk hartzen ditu emaileak, ama-zelulak odolera pasa daitezkeen, eta aferesis izeneko teknika bidez ateratzen dizkigute ama zelulak (besotik ateratzen da odola).

Kasu batzuetan, hezur-muinaren donazioa egiteko, ziztada edo puntzio txiki batzuk egiten dira aldaka edo mokor inguruan. Anestesia epiduralarekin egiten da, normalean, eta 24 orduko ospitaleratzea eskatzen du.

Kasu batean zein bestean emailearen hezur-muina egun gutxitan birsortzen da gutzitza eta ez dauka inolako arriskurik. Aldiz, pertsona askorentzako sendabide bakarra da.

Haur jaioberrien zilbor-hes-teko odoletik ere atera daitezke ama-zelulak.

## Azken urteotan gora egin du hezur-muin emaileen kopuruak, baina oraindik oso txikia da, ezta?

Josep Carreras fundazioak kudeatzen duen REDMO erregistroan 400.000 pasatxo emaile daude gaur egun, Espainiako biztanleriaren %0,86 inguru. Euskadiakoak 15.459 dira (%0,70). Beraz, badugu zertan hobetu, lehen esan dugun moduan, hurbiltasun genetikoa oso inportantea delako emaile bateragarriak



## MINDFULNESS ETA ERLAXAZIO TAILERRA

Iturrigorri Elkarlan elkarteak egiten duen prebentzio lanaren esparruan, Mindfulness eta Erlaxazio Tailerra eskainiko du Maribel Pachecok Oñatin. Lau saio izango dira, urriaren 15, 17, 22 eta 24an (18:30-20:00) Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta kalea, 18). Ikastaroa dohainik da, udalaren laguntzari esker.

Eguneroko bizi-kalitatea hobetzeko tresnak eskuratu nahi duen orori zuzenduta dago. Emozioak kudeatu eta burua gaixotasunetatik babesteko estrategiak irakatsiko ditu Pachecok. Interesatuak [maribelpachecos@gmail.com](mailto:maribelpachecos@gmail.com) helbidean eman dezakete izena, edo 687 752 842 zenbakira deituta.



aurkitzeko. Espainia mailan, adibidez, urtean 6.000 leuzemia kasu diagnostikatzen dira.

### Nor izan daiteke emaila eta nola?

Osasuntsu dagoen 18 eta 40 urte arteko edozein izan daiteke emaila. Interesatuak Gipuzkoako Transplanteen Koordinazio Zentrorra (943 007 000) deitu dezake. Informazioa bidaliko zaio etxera, elkarrizketa bat izango du mediku batekin, zalantzak argitzeko, eta aurrera jarraitu nahi badu, odol analitika bat egingo zaio, bere 'matrikula' immunologikoa zehazteko. Informazio hori REDMO erregistrora bidaliko da, eta egunen batean agertzen bada zurekin bateragarria den gaixoren bat, orduan deituko dizute transplantea egiteko.

Hezur-muinaren donazioa anonimoa, borondatekoa, unibertsala eta altruista da.

**Minbizien prebentzian ere lan egiten duzue eta Ohitura Onen Gidaliburua atera duzue, ezta?**

Bai. Bizi itxaropena luzatuz doan heinean, minbizia izateko arriskua ere handiagoa da, eta gaitzaren aurkako borrokan asko aurreratu bada ere, prebentzioa da tratamendu eraginkorrena. Izaera genetikoa duten minbiziak ezin ditugu kontrolatu, baina beste kasu batzuetan prebenitzen laguntzeko aukera dugu: zer jaten dugun zainduz, jarduera fisikoa eginez, elementu toxikoen eraginpean ahalik eta denbora gutxien egonez, eta emozioak egoki kudeatuz, besteak beste.

### Horrekin lotuz, laguntza psikologikoa ere ematen duzue, ezta?

Bai laguntza emozionalaren helburua da pazienteari laguntzea, bizi duen egoera zail horretan gertatzen zaionaren jabe izateko, eta bere osasun fisiko eta psikologikorako erabakirik onenak hartzeko gai izan dadin.

Laguntza psikologikoak konfiantza indartzen lagunduko dio; emozioak kudeatu eta bizi berbereratzeko behar duen oreka emozionala eta barne-bakea bilatzen lagunduko dio. ■

### 'Un Match X una vida'

Osasun ministerioak abian jarri duen kanpainaren bidez, hezur-muin emaileen kopurua 500.000ra igotzea lortu nahi da estatu mailan 2022rako



Kanpainaren  
spot-a

Urte askotan zuekin


Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)



# Maker Gunea

## egokitu dute Enpresagintza fakultatean

» 3D inprimagailuak eta ebakitzaille laserra bezalako makinak aurkituko ditugu bertan. » Ekintzailtza graduako ikasleentzat ez ezik, baliabide hauek behar dituzten herritar guztientzat zabalik dago *Maker Gunea*.



Udako oporraldia aprobetxatuz, iraultza txiki bat egin dute Enpresagintza fakultateko hegal batean. LEINN (Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza) graduako ikasleen lan eremua berri eta egokitzeaz gain, *Maker Gunea* sortu dute bertan.

Azken urteotan gero eta indar handiagoa hartzen ari dira *Maker Space* izeneko gune hauek. Baliabide teknologiko berritzaileak erabiltzeko eta lankidetzan aritzeko aukera ematen duten lan eremu kolaboratiboak dira; sorkuntza teknika berriak ezagutzeko, probatzeko eta ikertzeko aukera eskaintzen duten guneak.

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateak eskaintzen duen LEINN graduari orientazio teknologikoagoa emateko asmoz egokitu dute *Maker gunea*. Ekintzailtza graduako ikasleek enpresak sortu eta produktu edo zerbitzu errealak diseinatu behar izaten dituzte formazio prozesuan zehar, 'Ekinez ikasi' metodologia aplikatuz. Baina hamar urteko ibilbideak erakutsi du ikasleek zerbitzuen arlora jotzen dutela nagusiki, teknologiarri "beldurra" diotelako. Horregatik, LEINN

graduako arduradunek urrats bat eman nahi dute aurten, ikasleen formazio prozesuan gai teknologikoen (*big data*, *internet of things*, *Blockchain*, robotika...) inguruko oinarritzko trebakuntza eskainiz.

Eta helburu horrekin egokitu dute *Maker gunea* ere, 3D inprimagailuak edo ebakitzaille laserra bezalako makinekin. Pertsona batek bere kabuz nekez eros ditzakeen tresnak dira, oso garestiak direlako, baina *maker gunean* erabiltzeko aukera izango dute, beste ikasle batzuekin partekatuta.

Modu horretan, teknologiarri beldurra galtzeko aukera izango dute *leinner* edo ekintzaileek, eta aukerez beteriko mundu berri bat deskubritu eta jorratu ahal izango dute beraien sorkuntza prozesuetan.

Baina *maker guneak* ez dira bakarrik makinak. *Maker* espazioa talde-lana eta lankidetzan sustatzen duen eremua bat da, eta berau erabiltzen duen *maker* komunitatea da guneari bizia eta zentzua ematen diona. Proiektu honen helburua da, azken batean, ikasteko, esploratzeko eta esperientziak partekatzeko pertsona komunitate bat sortzea, eta lan hori

Goian ikus daitezke Enpresagintza fakultateko *maker gunean* ipini dituzte makinak batzuk (ebakitzaille laserra, goian, eta 3D inprimagailuak ezkerrean), eta horiekin egin daitezkeen pieza eta diseinuen adibide batzuk





LEINN graduko ikasleentzako office edo lantokiak ere berritu dituzte, espazio ireki eta argitsuak sortuz, maker gunearekin konektatuta, ekintzaileentzako habitat goxo eta egokia sortuz



errazteko, Enpresagintzako *maker* gunean bi gela eroso eta praktikoa badaude (gune 'garbia' deitzen zaiona) taldean elkartu, ideiak partekatu edota bozeto edo zirriborroak egin ahal izateko, besteak beste.

*Maker* gunea ego-  
kitzeaz gain, LEINN  
graduko ikasleentzako  
*office* edo lantokiak ere  
berritu dituzte, espazio  
ireki eta argitsuak sor-  
tuz *maker* gunearekin  
konektatuta, ekintzai-  
leendako habitat goxo  
eta egokia sortuz.

### HERRITAR GUZTIEI IREKIA

Maker gunea berria LEINN graduko ikasleengan pentsatuta dago, noski, baina ez da horretara bakarrik mugatuko. Enpresagintza fakultateko eta ekintzaitzako graduko arduradunen asmoa da espazio irekia izatea, eta interesa edo be-

harra duen edozein herritarren eskura jartzea.

Ilido horretan, herriko ikastetxeekin harremanetan jarriko dira, elkarlanerako aukerak aztertu eta *maker* guneko azpiegituran interesa izan

dezaketen ikasleen zerbizura jartzeko.

Bestalde, ekintzaitzako sustatzeko asmoz, Enpresagintza fakultateak eta Oñatiko udalak antolatzen duten Elkarrekin Ekin programan parte hartzen duten pertsonen ere erabili ahal izango dituzte bertako baliabideak, eta, oro har, tresna hauekin esperimentatu nahi

duen edozein herritarrek izango du aukera *maker* guneko makinak eta azpiegitura erabiltzeko. "Etor daitezela lasai gurekin hitz egitera" esan digute LEINN graduko arduradunek ([onatimaker@gmail.com](mailto:onatimaker@gmail.com)).

## MAKER EGUNA

Enpresagintza fakultateak eta Oñatiko udalak antolatzen duten Elkarrekin Ekin programaren baitan, *Maker Eguna* egingo da **urriaren 25ean**.

*Maker* munduan adituak diren zenbait pertsonen esperientziak ezagutu eta Enpresagintza fakultateak egokitu duten *Maker* gunea ezagutzeko aukera egongo da. Interesa duten herritar guztiak daude gonbidatuta.

## Bateria bat eskolan!

Enpresagintza fakultateko *Maker* gunera hurbiltzen den edonori harrigarria edo bitxia, behintzat, egingo zaio bateria bat eta beste musika tresna batzuk ikustea sarreran. Eta barrura sartzen bagara, musikari erreferentzia egiten dioten kontzeptu eta esaldiak ikusiko ditugu nonahi.



Eta horrek badu bere esanahi edo zergatia, jakina. Arteak, oro har, eta musikak ere bai, mundu ikuskera eta pentsamolde alternatiboak sortzera eramaten gaitu, eta egiten duen horretan emozionalki eta profesionalki murgiltzera eramaten du artista. Gainera, demostratuta dago musikak paper inportantea jokatu duela beti kulturaren ezagutzan eta transmisioan. Horregatik, laboratoriorik guztia **MTA Oñati Rocking Lab** izenez bataiatu dute, eta musika izango da bere nortasunaren ikurra.





# "Brexitaren inguruko erreferendum berri bat deitzea ez dut uste logika demokratikoari iruzur egitea denik"

## **JOXERRAMON BENGOETXEA CABALLERO**

**EHUko irakaslea eta Oñatiko Lege-Soziologia Institutuko masterreko arduraduna**

**D**ata erabakigarriak hurbiltzen ari dira 'Brexit'-arentzat. Erresuma Batuko herritarren gehiengoak (%51,8) Europar Batasunetik irtetea erabaki zuen 2016ko ekainaren 23an, eta hiru urte pasa badira ere, oraindik ez dago akordiorik 'dibortzio'rako. Urriaren 31rako dago ezarrita irteteko eguna, baina ez dago garbi zer gertatuko den. Urriaren 19a baino lehen akordiorik ez badago, Boris Johnson lehen ministroak luzapen berri bat eskatu beharko dio Europar Batasunari, Britainia Handiko parlamentuak onartu berri duen lege baten arabera. Baina gobernuko buruak behin baino gehiagotan esan du ez duela luzapen berririk eskatuko inola ere, eta akordiorik gabeko brexit-a gauzatzearen alde agertu da. EHUko irakasle eta Oñatiko Lege Soziologia Institutuko masterreko arduradun Joxerramon Bengoetxeari eskatu diogu laguntza, egoera katramilatsu honetan zer gerta daitekeen aztertzeko.

### **Zer gertatuko da zure iritziz urriaren 31n?**

Ez da erraza asmatzea zer egin dezakeen Boris Johnson lehen ministroak. Urriaren 19a baino lehen Europar Batasunarekin akordiorik lortu ezean, luzapena eskatu beharko luke, Komunen Ganberak onartutako lege batek hala behartuta. Baina Johnsonek berak esan du behin eta berriz ez duela luzapenik eskatuko, eta akordioarekin edo gabe, hilaren 31n gertatuko dela haustura.

Akordiorik eta luzapenik ez bada, *No Deal* edo *Brexit* Gogor bezala ezaguna den irteera aplikatuko da automatikoki hilaren 31n.

### **Ze ondorio izango luke brexit gogorak?**

Azaroaren lehenean merkatu eta aduana-batasunetik kanpo geratuko litzateke Erresuma Batua. 'Hirugarren estatu' baten estatusa izango luke Europar Batasunarentzat, egun Txinak, Errusiak edo Mongoliak duten maila bera.

Aduana-kontrolak eta mugazergak berrezarriko lirateke, eta horrek ondorio latzak eragingo ditu, bereziki Erresuma Batua-arentzat. Gobernu britainiarrak prestatu duen 'Yellowhammer' txostenak berak ohartarazten du akordiorik gabeko brexit-ak izango lituzkeen ondorioez: prezioen igoera, portuen kolapsoa, arazoak elikagaiekin eta sendagaiekin... Gainera, Irlanda barruko mugaren afera konpondu gabe geratuko litzateke...

teke... Ondorio oso gogorak, muturrekoak.

Gainerako europarroi eta Euskal Herriko enpresa askori ere eragingo die, jakina. Merkantzien garestitzea ekarriko du, eta ez dezagun ahaztu, atzerriko laugarren bezero garrantzitsuena dela Erresuma Batua euskal enpresentzat.

### **Aditu gehienek diote brexit-ak behaldira ekarriko duela epe motzean Erresuma Batuko ekonomiarentzat. Hala ere, britainiarren gehiengoak atara egin nahi du Europatik. Zer lortu nahi dute?**

Mugen kontrola berreskuratzea zen kanpaina 'leave'n aldekoek erabili zuten argudio nagusia, etorkin kopurua murriztu ahal izateko. Arrazoi ekonomikoak (Europar Batasuneko kide izatea garesti ateratzen zaiela diote, eta merkataritza-hitzarmen propioak negoziatzeko askatasun osoa izango dutela), politikoak, historikoak, nazionalistak... ere badaude.

**Teresa May** gobernuburu ohiak lortu zuen brexit-erako akordioa, baina Erresuma Batuko parlamentuak birritan

**Akordiorik gabeko brexit-ak ondorio oso gogorak ekarriko lituzke, batez ere Erresuma Batua-arentzat**





Irlanda barruan mugarik ez ezartzea da *Backstop*-aren helburua

## ***Backstop*-a, brexit-erako oztopo nagusia**

*Backstop* izeneko formula da *brexit*-a gauzatu ahal izateko Erresuma Batuak eta Europar Batasunak duten oztopo edo traba nagusia. Erresuma Batua (Ipar Irlanda barne) Europatik ateratzeak esan nahi du muga ezarri beharko litzatekeela berriz ere Irlandako Errepublika eta Ipar Irlandaren artean, eta hori ez du inork nahi, 1998ko bake akordioa kolokan jar lezakeelako. Mugarik ezarri beharrik ez izateko, *backstop*-ak proposatzen du Ipar Irlanda aduana-batasunean mantentzea, Erresuma Batuak eta Europar Batasunak akordioa lortzen duten bitartean bien arteko merkataritza harremanen inguruan.

Batuaren zatiketa eta Irlandaren bategitea esan nahi duela diote.

Horren aurrean, *backstop*-a Britania Handia osoan aplikatzea ere proposatu zen; alegia Erresuma Batua osorik geratzea aduana-batasunean, Europako merkatu arauen menpe, eta beste herrialde batzuekin akordioak sinatzeko aukerarik gabe. Baina britainiarren gehiengoak ez du onartzen, egoera hori betikotu den beldur.

**Gero eta gehiago dira brexit-aren inguruko erreferendum berri bat eskatzen dutenak. Azkena, Alderdi Laboristaren buru Jeremy Corbyn. Nola ikusten duzu? Ez al litzateke izango 2016ko erreferendumean brexit-aren alde bozkatu zutenen 17 milioi britainiarrei iruzur egitea?**

Debate politiko bat da. Nik esango nuke erreferenduma egin zenean inork ez zekiela zer motatako brexit-a aterako zen negoziatioetatik; alegia, brexit-ari bai esan zioten, baina jakin barik zein brexit mota izango zen.

Beraz, logika demokratikoa izan dezake berririko galdetzeak: hau da negoziatu duguna; hau al da nahi zenuena?

Izan daiteke erreferendum berri bat planteatzea, edo, bestela, plebiszitu izaera izango luketen hauteskundeak deituta. ■

### **bota zuen atzera, Europa zale nahiz euro eszeptikoen botoekin. Zergatik?**

Europa zaleek ez dute akordiorik nahi, Batasunean jarraitu nahi dutelako. Brexit-aren aldekoek berriz ez dute onartu nahi Ipar Irlandako auzia bideratzeko proposatzen den *Backstop* izeneko formula.

### **Zertan datza *Backstop*-a?**

Erresuma Handia (Ipar Irlanda barne) Europar Batasunetik ateratzeak esan nahi du muga ezarri beharko litzatekeela Irlandar Errepublika eta Ipar Irlandaren artean, eta horrek kolokan jarriko luke 1998ko Ostiral Santuko

bake akordioa. Eta hori ekiditea da, hain zuzen, *Backstop*-aren helburua. Ez Erresuma Batuak ez eta Europak ere ez dute nahi irla zatitzea muga fisikoekin.

Horregatik, *Backstop*-ak zera proposatzen du: brexit-a gauzatu ondoren Europar Batasuna eta Erresuma Batuaren arteko harreman komertzialak adosteko irekiko den trantsizio epean akordiorik lortuko ez balute, Ipar Irlanda aduana-batasunean mantenduko litzateke, kontrol batzuekin Erresuma Batutik sartuko liratekeen produktuentzat.

Hori, jakina, Ipar Irlandako DUP alderdiko unionistek ez dute onartzen; praktikan Erresuma

**Ipar Irlandako unionistek ez dute *backstop*-a onartzen; praktikan, Erresuma Batuaren zatiketa eta Irlandaren bategitea ekarriko duela uste dute**



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

**Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea**  
**Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza**  
**Merkataritza • Abokatuak**

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)

## Lazarraga lorategiak erabilera publikoa izaten jarraituko du beste lau urtez

Udalak eta Sotomayorreko dukeak hitzarmena sinatu dute, Lazarraga jauregiko lorategiak erabilera publikoa izaten jarrai dezan. 2012an hitzartu zuten aurrenekoz lorategi pribatua herriari zabaltzeko akordioa, eta orduko kontratuaren iraupena bete den honetan, hitzarmen berria sinatzea adostu dute alde biek, baldintza hauetan:

1. Lorategiaren lagapena doakoa izango da eta legegintzaldiaren iraupena izango du.
  2. Egunero irekiko da parteka (9:00-17:30) salbuespen hauekin: abuztuan eta irailean itxita egongo da, eta baita San Migel bixamona, Herri Eguna eta Errosarixo bixamon egunean.
  3. Oñatiko udalaren kontura ordainduko dira ura, argia eta parkea erabiltzeko eta mantentzeko beharrezkoa diren beste gastu guztiak.
- Beraz, aurrerantzean ere, herriaren erdi-erdian dagoen 4.000m<sup>2</sup>-ko berdegune eta arnagune eder honetaz gozaten jarraitu ahal izango dugu herritarrok.



## Bost langabetu aldi baterako kontratatzeako deialdia

LANBIDE-ren bitartez udal brigadarako hiru pioi eta kale garbiketa zerbitzurako bi pioi kontratatzeako deialdia egin du udalak. Brigadakoen kontratuak hiru hilabeterako izango dira, eta garbiketa zerbitzukoak sei hilabeterako. Denak lan jardun osokoak. Interesatuena urriaren 5a baino lehen eman behar dute izena Lanbide-ren webgunean (162019009112 eta 162019009117 lan-eskaintza kodeak) edo telefonoz (945160600 / 630305452). Oñatin erroldatuta eta Lanbiden izena emanda egotea eskatzen da. Eskolaratze ziurtagiria eta B1 gidabaimena edukitzea ere eskatzen da. Euskara jakitea eta antzeko lanetan esperientzia izatea baloratuko da.

## Selma Huxley Barkham ikerketa bekarako deialdia egin du udalak

Selma Huxley Barkham ikerlari ingeles-kanadiarraren izena duen ikerketa bekaren bigarren ediziorako deialdia egin du udaleko Berdintasun sailak. Historia generoaren ikuspegitik aztertu eta Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak aztertzea eta ezagutzera ematea da bekaren helburua. Bekak 18.000 euroko dotazioa du, eta proposamenak (10-20 orriko txostena) aurkezteko 30 egun balioduneko epea egongo da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrera. Udalaren webgunean kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.

## 8 milioi euroko mailegua Laboral Kutxarekin kontratatuko du udalak

Agintaldi honetan egingo diren inbertsioei aurre egin ahal izateko 11 milioi euroko mailegua hartuko du udalak. 11 milioi horietatik 3 Oñatiko Ur Jauziak enpresari eskatzea erabaki zuen udalbatzak uztailan, eta beste 8 milioiak erakunde finantziario batekin kontratatzea. Oñatin bulegoa duten erakundeek eskaintzak aztertu ondoren, mailegu berria Laboral Kutxarekin kontratatzea erabaki du udalbatzak aho batez. Dirua hiru urteko epean har-tzen joango da udala, beharren arabera, eta bi maileguak itzultzeko epea 14 urtekoa izango da, eta ordainduko den interesa, Euriborra gehi 0,47.

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak  
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)





## 'BERTAKOAK' APARKATZEKO TXARTELA

2020rako altak eta bajak tramitatzeko epea urriaren 14tik azaroaren 11ra zabalduko da. Aurten **Aozaratza** kaleko bizilagunek ere eskatu ahal izango dute txartela

Datorren urtera begira 'BERTAKOAK' aparkatzeko txartela eskatu edo ezeztatu nahi duten herritarrek urriaren 14tik azaroaren 11ra egin beharko dute eskaera udaletxeko HAZ bulegoan, dagokion eskaera-orria betez. Trafiko zuzendaritza nagusian behean zehazten diren kaleetan erregistratuta dauden ibilgailuen jabeek eskatu ahal izango dute txartela, baldin eta jabea ibilgailuaren helbide berean erroldatuta badago.

**Zona 5 Gunea (AITA MORTARA):** Kale Zaharra 1-29 eta 2-48; San Anton, Aita Madina, Aita Mortara, Foruen plaza, Portu kalea, Unibertsitate etorbidea, Maiatzaren 1º plaza, Bakardadeko Ama eta Zumeltzegei kalea.

**Zona 6 Gunea (BIDEBARRIETA):** Bidebarrieta kalea, Zubibarri, Motxon, Atzeko Kale, Kale Barria, Errementari, Ramon Irizar eta M. Aozaratza.



## Eraso sexistarik gabeko jaien alde

Herriko jaietan eman litezkeen eraso sexisten prebentziorako eta erantzuna hobetzeko kanpaina antolatu du udaleko Berdintasun sailak. Bide horretan, urriaren 5ean 'Beldur Barik' informazio gunea egongo da Kale Zaharrean, erasoen gaineko informazioa emateko. Gainera, aurten telefono zenbaki bat (688 621 213) ere jarri du udalak herritarren eskura, eraso sexisten aurrean aholkularitza, laguntza eta aurrez aurreko arreta eskaini ahal izateko. Jai egun guztietan egongo da telefono zerbitzua martxan, 20:00etatik 10:00etara.

Ildo berean, Oñatiko Sare Feministak, Txosna batzordearekin elkarlanean, txosna gunean gerta daitezkeen erasoei aurre egiteko protokoloa garatu du. Azken batean, denon inplikazioa behar da eraso sexistarik gabeko espazioak eta guztion gozamenarako jaiak bermatu nahi baditugu.



## Emakumeentzako JABETZE ESKOLA

Herriko emakume guztiei zuzendutako Jabetze Eskola jarriko du martxan aurten ere udaleko Berdintasun sailak. Emakumeak beren eskubideen jabe egiteko, beren bizitzetan autonomia eta konfiantza izateko, eta beste emakume batzuekin sareak sortzeko espazioa da Jabetze Eskola. Emakumeen ahalduzko prozesuan eragitea da bere helburua, eta hori lortzeko asmoz, errealitatea ikuspegi feministatik aztertu eta berau aldatzeko tresnak jarri nahi ditu.

Ildo horretan, hainbat tailer eta ikastaro antolatu dira datozen hilabeteetarako. Ikastaro bakoitza hasi baino 8 lanegun lehenago eman behar da izena, udaleko erregistroan edo [www.onati.eus](http://www.onati.eus) webgunean. Informazio gehiago: 943780411 / [berdintasuna@onati.eus](mailto:berdintasuna@onati.eus).

### IKASTAROAK-TAILERRAK

- 1.- **Amorrua gorpuztu. Jabetze emozionalerako elkar ikasketa bidea** azaroak 6 - abenduak 11
- 2.- **Perkusio afrikarra** urriak 15 - abenduak 17
- 3.- **Feminitatearen labirintua** urriak 16 - abenduak 18
- 4.- **Gorputz performatiboak eraikitzen. Gorputza berreskuratzen** urriak 19 - azaroak 9
- 5.- **Brikolaje ikastaroa** urriak 14 - abenduak 16
- 6.- **Autodefentsa ziberfeminista** urriak 26
- 7.- **Erotikoa ni? Bai zera!** azaroak 6, 30 eta abenduak 14
- 8.- **Herrialde eta kultura askotako emakumeen topalekua** urriak 23, azaroak 20 eta abenduak 11



Egitarau osoa



## Berbalagun egitasmoa hiztun bila

Oñati herri euskalduna da, oro har, baina, hala ere, badira gure artean euskaraz egiteko zailtasuna dutenak edo euskaraz egiten ausartzen ez direnak: ikasten dabiltzalako, inguruan euskaldunik ez dutelako, euskara herdoildu zaielako, gaztelaniaz erosoago aritzen direlako... **Berbalaguna** egitasmoa izan daiteke zailtasun horiek guztiak gainditzeko modua.

Urrian jarriko da berriz martxan egitasmoa, eta berbalagun berrien bila dabilta antolatzaileak. Talde gehiago osatu nahi dira, inor gera ez dadin mintzapraktika egiteko aukerarik gabe.

Funtzionamendua oso sinplea da: euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta mintzapraktika egin nahi dutenak elkartzen dira, euskaraz egiteko. Astean behin, ordubetez, talde txikitan, paseoan, kafetegian, parkean...

Etor zaitez **urriaren 9an** egingo den ikasturte berriaren aurkezpena, Euskaldun Berria gelan, 18:00etan. Izenematea zabalik urriaren 18ra arte.

# AUZOKO

» Erdal hiztunak euskarara hurbiltzeko ekimena martxan jarriko da aurten ere. » Herritar guztiak daude gonbidatuta parte hartzera.

Oñatiko udalak eta Euskaltzaleen Topaguneak elkarlanean antolatzen duten programa da AUZOKO. Helburua da jatorri ezberdinetako herritarrak euskarara gerturatzea eta, bide batez, herrian integratzen laguntzea, beti ere persona horien hizkuntzak eta kultur aniztasuna aintzat hartuz eta balioan jarritz.

Horretarako, bi hanka edo osagai nagusi ditu **Auzokok**: alde batetik **AUZOKIDEAK** (euskarara hurbildu nahi duten herritarrak) eta bestetik **AUZOTARRAK** (euskal hiztunak). Astean behin elkartzen dira ordu eta erdiz, ekintza ludikoen bidez (mahai-jokoak, tailerrak, kantak, afari tematikoak...) elkarren arteko zubiak eraiki eta harreman sareak sortzeko, euskara ardatz hartuta.

### HERRITAR GUZTIEI GONBITA

Carol Palacio izango da aurten Auzoko programaren koordinatzailea. Valentziarra sortzez, hamalau hilabete daramatza Oñatin, eta oso euskara maila polita lortu du denbora gutxian. Euskararekin maiteminduta dagoela aitortu digu, eta ilusioz beterik dagoela erronka berri honen aurrean; "beste pertsona batzuei lagundu nahi diet euskararen mundua deskubritzen eta maitatzen".

Animatu egin nahi ditu herritarrak Auzoko programan parte hartzera, Auzokide edo Auzotar bezala. "Kanpotik datozen pertsonak euskara hurbiltzea, lehen pausoa ematea eta beldurra galtzea da helburua" azaldu digu Carolek. "Baina oñatiarrentzat ere oso aberasgarria da Auzokon parte hartzea, herrian dagoen hizkuntza aniztasunaz jabetzeko aukera ematen duelako, eta hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jartzeko bidea ematen duelako, harreman sareak zabalduz, eta herrian integratzeko aukera erraztuz. Kanpotarra izan ala bertakoa,

denok egin dezakegu gure ekarpentxoak, eta gauza polit bat sortu denon artean".

Wednesday Silvak hiruzpalau urte daramatza Auzokon parte hartzen. Dagoeneko oso ondo moldatzen da euskaraz, baina laguntzen jarraitzen du, hala ere. "Jendea ezagutzeko aukera eman dit Auzokok; hizkuntza eta kultura desberdinei buruz ikasteko aukera. Altxor bat da beste pertsona batzuekin partekatu ahal izatea zure bizi esperientziak, zure hizkuntza, kultura... Badakit nola sentitzen den jendea kanpoko herri batera iristen denean, eta oso inportantea da bertako herritarrekin harreman sarea sortzea, eta horretarako bide egokia da Auzoko. Niretzat oso lagungarria izan da, eta animatu egin nahi dut jendea parte hartzera". ■



Carol Palacio izango da aurten Auzoko programako dinamizatzailea  
Wednesdayk lau urte daramatza Auzokon parte hartzen

**Urriaren 14an** egingo da Bidebarrieta kaleko 16an  
(19:00) aurtengo Auzoko programaren aurkezpena.  
**Animatu eta etorri!!!**





## Arantzazu, harriz herri

**Arantzazuren garrantzia historikoa nabarmentzen duen dokumentala sortu du Nabarralde fundazioak**

Euskal Herriaren memoria kolektiboa berreskuratu eta ezagutzera emateko lanean diharduen Nabarralde fundazioak *Arantzazu, harriz herri* dokumentala sortu du. Nabarralderen ustez oso garrantzitsua da gure herriko memoria lekuak balioan jartzea, gure historiaz, gure ondareaz eta gure nortasunaz hitz egiten dutelako, eta memoria leku horietako bat da Arantzazuko santutegia, zalantzarik gabe.

Ordu erdiko iraupena du Nabarraldek ekoiztu duen ikus-entzunezkoak, eta irudi ederrekin batera, Arantzazu erreferentziatzko leku bilakatu zen garaira eramango gaitu: artea, euskara, kultura eta, oro har, euskaldunen babesleku bilakatu zen garaira, hain zuzen.

Juan Ignazio Larrea frantziskotarrak esan zuen opari borobila dela dokumentala, santutegiaren alderdi nagusiak ezagutzeko aukera ematen duelako. Izaro Elorza alkateak ere txalotu egin zuen gure herriaren historia eta ondarea zabaltzeko Nabarralde egiten ari den lana. Arantzazuko dendan dago salgai 10€-tan ,



## Eskerrik asko Joxan, ongi etorri Horazio

“Eskerrik asko, bihotzez. Maitatua sentitu naiz zuen artean. Apaiz eta kristau hobea izaten lagundu didazue, eta ez dut berehalakoan ahaztuko Oñati”. Hitz horiekin agurtu zen Joxan Larrañaga parrokoa San Migel eguneko mezan, hamaika urteko parroko-aldiari amaiera emanez. Parrokia ia bete zuten herritarrek txalo zaparrada batekin agurtu zuten. Eta txaloz hartu zuten baita ere parroko berria izango den Horazio Argarate (Eibar, 1966). Joandako hamar urteetan Arrasateko parrokoa izan denak “bertigo” pittin bat sentitzen duela aitortu zuen, baina konfiantza osoa jarri zuen Oñatiko kristau komunitatearengan. “Federa bizirik mantentzen ahalegindu behar dugu denok elkarrekin” dei egin zuen.

## Kontsumo kontzientearen garrantzia landuko da Bizipoz-8 programan

Zahartzaro aktiborako formazioa eskaintzen helburu duen BIZIPOZ programaren edizio berria jarriko da martxan azaroan. Udaberriari elikadura kontzientearen inguruan burutu zen BIZIPOZ-7 programak izandako arrakasta ikusita, kontsumoak gizartean duen garrantzia jorratuko a udazkeneko edizio berrian. Denera 6 tailer teoriko-praktiko izango dira azaroan eta abenduan zehar, *BiziPoz* taldeak eta Amaia Diaz de Monasteriogurenek gidatuta. Urriaren 14an egingo da programaren aurkezpena, Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.

## EUSKARALDIAren aurkezpena egingo da urriaren 23an

Hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin, 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den EUSKARALDIA kanpaina aurkezteko saioa egingo da urriaren 23an, udaletxeko areto nagusian (18:30). Bertan emango dira ezagutzera bigarren edizio honetako berritasunak, eta Oñatiko batzordea jarriko da martxan.

**Etxe-Aundi**  
Hotela - Julitea \*\*  
Tel. 943 78 19 56  
www.etxeaundi.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Olaitturri

Esteban Irusta

Aspaldi honetan, aldian-aldian, prentsan agertzen da Olaitturri egiteko dagoen proiektuaren berri. Ez dirudi leku egokiena denik herriko alde historiko hori eraikin berri bat egiteko. Zoritxarrez, hiri eta herri askotan ikusten dira monumentu historikoak etkez inguratuta, bere garaian ez zegoelako behar besteko ezagutza eta kontzientzia monumentu horiei buruz. Oñatin bertan daukagun kasua, parrokiaren inguruan, gaur egun ez litzateke onartuko. Jakina da alkate batek izan zuela etxebizitza horiek kentzeko intentzioa.

Egindakoak eginak daude, baina garai hauetan XVI. mendeko unibertsitate eta XIX. mendeko monumentu baten artean eraikin berri bat egitea, ez dirudi ideia aproposena.

Gainera, ez da estetika arazoa bakarrik. Eraikin horrek, proiektatuta dagoen moduan, kalte larria egingo lieke ondoan bizi diren komentuko kanonigoei eta etorkizunean bertan izango direnei.

Ez ahal da egin proiektu hori edo helburu berdina duen bat, inguruari eta, batez ere, biztanleei horrenbesteko kalterik egin gabe? Hau da herriar batek baino gehiagok egiten duen galdera.

## Haurren danborrada

Amaia Erostarbe, Kultura batzordekidea, EAJren udal-taldearen izenean

Irailaren 21ean haurren danborrada ibili zen Oñatiko kaleetan, eguraldi ederra lagun. EAJren udal-taldeak esker ona adierazi nahi diegu danborrada gauzatu ahal izateko borondate onez jardun duten guztiei: besteak beste, umeen gurasoei, musika-eskolako irakasleei, musika-bandakoei, irazaneko kideei, udal-langileei...

## OHAR ETA DEIALDIAK

### Txistu Eguna ospatzeko gonbita

Oñatz Dantza Taldearen 50. urteurrenaren harira, TXISTU EGUNA ospatuko da 2020ko azaroan, lehengo eta oraingo txistulariekin. Parte hartu nahi duenak jar dadila harremanetan: aitor@jazpiazumusikaeskola.com / 645009883 (Aitor)



## ESKERTZA MEZUAK

### Haurren Danborrada Taldeak, esker onez

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, haurren danborrada aurrera ateratzea posible egin diguzuen guztioi. Batez ere, irabazirik gabe buru belarri laguntzen aritu zareten guztiei: Aurreko urteko antolakuntzakoei, Musika Eskola, Ganbara, Gereta Ardoak, Txorimaloekin aritu direnei, Miguelin eta Mainerri,... Eta nola ez Udaletxeko langile, Kultur Teknikaria, Oñatiko Musika Banda, Kiku, Mizke, familia eta bestelakoei.

**COINBROKER**  
**OÑATI** ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

943 089 006 | oinati@coinbroker.eus  
www.coinbroker.eus



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)





## Zorionak!

Zorionak, hizki larriz, eman beharrean gaude, beste behin. Moriarti ekoiztetzeko hirukoak (Aitor Arregi, Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga) goia jo du berriz ere, *La trinchera infinita* filmarekin. Zuzendari eta gidoi onenaren sariak jaso dituzte, besteak beste, zine zale eta aditu gehienen aldeko iritziez gain. Azaroaren 1etik 4rako asteburuan ikusi ahal izango dugu filma Oñatin.



PABLO GOMEZ

Pintura, eskulan dekoratiboak, sendabelarrak, Patchwork...

## Kultur etxeko ikastaroak 2019-2020

Udaleko kultura sailak hainbat ikastaro eta tailer antolatu ditu aurten ere. **Urriaren 10etik 18ra** eman behar da izena, udaletxeko zerbitzu telematikoetan ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) -ziurtagiri digitala behar da-) edo Herritarren Arreta Zerbitzuan (7:30-15:30). QR kodean sakatuta aurkituko duzue informazio osoa: datak, ordutegiak, prezioak, irakasleak...



## Antzerki ikastaro zikloa

Oñatiko Irazan Antzerki Guneak hiru tailer monografiko antolatu ditu, antzerkira eta arte eszenikoetara gerturatu nahi dutenentzat.

### • URRIAK 26

*Antzerkia elkargunerako espazio gisa*

### • AZAROAK 16

*Arte eszenikoetarako mugimenduaren ikerketa eta esplorazioa*

### • AZAROAK 30

*Gorputz eta ahots entrenamendua antzerkian.*

**Ordutegia:** 10:00-13:00 / 15:00-18:00

**Tokia:** Eltzia (Irazan Antzerki gunea)

**Prezioa:** 30€ (20€ ikasle eta langabetuak) saioko

**Hizkuntza:** gazteleraz.

**Izen-ematea:** [irazantaldea@gmail.com](mailto:irazantaldea@gmail.com) / 634 450 355 (Amaia)

**MARGO LEHIAKETA.** Irailaren 21ean jokatu zen San Migeletako XVII. Aire Libreko Margo Lehiaketa. 16 nagusik eta 2 gaztek parte hartu zuten. Raimundo Argos bilbotarrarentzat izan zen lehen saria, eta Eñaut Uribesalgok eraman zuen oñatiar onenarena. Gazteen Naiara Leza eta Izar Mendiola izan ziren sarituak. Kultur etxean daude ikusgai lan guztiak urriaren 13 arte.



**MUS TXAPELKETA.** Irailaren 21ean jokatu zen San Migeletako XI. Mus Txapelketa. 32 bikotek parte hartu zuten eta txapelak, garai-kurra eta 800€ko saria Arrasatera joan ziren. Argazkian dauden Gomez-Suarez oñatiarrak azpitxapeladun (400€+urdaiazpikoa) izan ziren

**Catalana Occidente** **Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
[mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com](mailto:mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com)

**Almaraz**  
Inmobiliari gestioa

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Tel.: 679411444  
[www.almaraz.info](http://www.almaraz.info)

## BOTEREAREN ITZALPEAN



**D**ahlber Actonek zioen bezala, “botereak usteldu egiten du eta erabateko botereak erabat usteltzen du. Boteretsuak direla uste dutenak kaltegarriak izaten dira maiz gizarteareantzat, baita agintearen ordezkari direnean ere”.

Erakunde bateko kide izateak haren gorabeheretan era aktiboan jarduteko aukera ematen bada ere, bada parte hartzen ez duena. Pasibotasun horrek ustelkeria erraztu eta iraunarazi egiten du; adiskidetasun eta nepotismoak denona beharko lukeen kudeaketa kutsatzen du eta hala, bakar batzuen interesak gailentzen dira, gainontzekoen kalterako. Beraz, zer zentzu du afiliatzeak?

Aginte kontuetan mugak izatea ezinbestekoa da. Izan ere, Dahlberrek zioen bezala, gobernantza legezkoa izateko beharrezko baldintza da mugatuta egotea. Eta, nola lortu genezake hori? Jardute aktiboa izanda, hain zuzen ere. Erakundean indarrez aritzeko konpromisoa da botere selektiboaren eta ustelkeriaren aurkako tresna bakarra. Gaur egun, horretarako baliabide asko ditugu eskura eta esfortzu txiki bat egin beharko genuke militantzia eta gardentasunez praxi txar honi amaiera emateko. Era berean, partaidetza aktibo eta afektibo hau funtsezkoa da berekoikeriatik elkarlanera pasatzeko. Hala, kide askoren artean erabakiak hartzeko bitartekoak ezarri behar dira, guztiona denak onura soziala lortzeko izan behar du eta, probetxu partikularra alde batera utziz.

Ekonomia-baliabideak mugatuak direnean doikuntzak egin behar izaten dira, beti ere proportzionaltasun eta ekitatean oinarrituta, onura pertsonala alde batera utzi eta kolektiboa nagusituko bada. Aipatutako bi printzipio horiek betetzen ez direnean bidegabekeria jaun eta jabe egi-



**Wednesday  
Silva**

ten da. Maiz ikusten ditugu bidegabekeria horren adierazle diren egoerak, ondoren banan-banan deskribatuko ditudanak, kasu.

Hasteko, erakundearen mesederako bailitzan eta beharrezkoak diren doikuntzak aitzakiatzat hartuta, kudeatzailerak arau orokorrak bereganatu eta aldatu egiten ditu bere eta “bere laguntxoan” onurarako. Horretan, partaide gutxi batzuen oniritzia eta beste askoren pasibotasuna lagun izaten ditu.

Gainera, aurkako iritzia duena edota bere nahiei amen egiten ez dioena zigortu egiten du modu guztiz arrazionalen, baita hari mendeku hartu ere.

Askotan ez da gai izaten baliabideak biderkatuko lituzketen proiektu erakargarriak sortzeko. Horrez gain, haren ustetan aurkariak direnak suntsitzen saiatzen da biziki.

Denbora asko pasatzen dugu lanean eta badakigu bidegabekeria maiz antzematen dela. Orain arte deskribatutakoa ezaguna egiten zait oso eta horrek bultzatu nau hausnarketatxo bat egitera.

Ia 30 urtez bertan lanean jardun eta gero, nork pentsatu behar zuen aldi baterako ezintasun baten ondoren ordura artekoak aldatu egin behar zuela? Aurrez deskribatutakoaz gain, honakoak dira antzemandako zenbait egoera edo jokabide, laneko jazarpenaren adierazle, zalantzarik gabe; alde batetik, zuzendaritzaren gogo eza langilearekin harremana izateko. Bestetik, hari dagozkion eginkizunen murrizketa nabarmena haiek kanpoko enpresei aginduz. Bileretan langile horren lan-egoerari buruz hitz egitea ere debekatu izan da, ez delako antza denez eztabaida-leku egokia. Haren iritzia ez da aintzakotzat hartzen, ezta aktan agertu ere. Lankideek egoera hau aitortzen dute petit comitéen. Baina ez dute ahaleginik egiten hura aldatzeko, horrek eurengan izan ditzakeen ondorioei beldur baitira (Italiako mafia bailitzan,

Omertà kodea bultzatzen da). Jazarpen honen ondorio dira egunero bizi izandako estresa eta antsietatea; onartezina da.

Erakunde baten kudeaketa ez da gauza erraza, noski. Aipagai dugun langilearen ordeztu beste eginkizun batzuetan aritzen denak, hala nola, zuzendaria edo irakasleetako bat, haren lana egin eta hark baino soldata altuagoa izatea egokia al da? Barakatuko didazue nire atrebentzia, baina kudeaketa hau egokia dela esatea ni japoniarra eta ilehoria naizela esatea bezain egiazkoa da.

Txantxak txantxa, azalduakoa **boosing** argia da. Honen helburua biktimak bere kabuz laneatik alde egitea da.

Kontaketa-leiha irabazteko asmoz amarru eta sufismoz baliatuz jarduten dute. Hona hemen adibide bat: “como se ha podido constatar, las funciones que usted presta han venido reduciéndose paulatinamente a lo largo del tiempo. Algunas de las cuales... han sido externalizadas y otras, gracias a los avances tecnológicos, los usuarios han incrementado el grado de autonomía para realizar las tareas que antes desarrollabas”.

Hori da hori lukainka sartu nahi digutena! Badira hiru bat urte aurrerapen teknologikoak ezarri zirela. Ordea, lanaldiaren murrizketarako lehen proposamena, eginkizunak kanpora ateratzea, langilea zereginez “hustea”, hauek horretarako prestatuta ez daudeneke burutzea, erakundearen araudia aldatzeko saiaketa eta abar orain dela lau urte hasi ziren, argudio bezala erabilitako aurrerapen teknologikoak ezarri baino lehen, alegia.

Zeini egin nahi diote iruzur? Egia esan, jende askori, gai honen berri ez izateagatik. Bestalde, erakundeko partaide diren askori haien pasibotasunagatik, egoeraren jakitun badiren arren. Pasibotasun horrek zuzenduta, bileretan egon, parean jartzen zaiena sinatu eta etxera itzultzen dira, benetan jardute horretan

**Botere-abusua ezabatzea ez da urgentzia bat bakarrik, emergentzia bat baizik eta, beraz, denok hartu behar dugu parte helburu hau beteko badugu**



parte hartu gabe. Baina haien beharra dagonean, are gehiago testu honetan azaldutako egorearen bat parean suertatzen deanean, tori eta tati egiten dute (eta hori jada egindakoa desegitea baino okerragoa da).

Nire ustez, gobernantza, kudeaketa eta autoritatea ikuskatu edo fiskalizatu egin behar dira beti eta hori eraginkorra izango da erakundeko partaiden konpromisoa aktiboa bada. Hala, onura eta interes orokorrak gailenduko dira, probetxu partikularrak alde batera utzita. Kudeaketa egokiak inspiratu, sortu eta elkarbanatu egin behar du, ez ordea, gorrotoak bultzatuta oztopo jotzen den hura suntsitu, eliminatu, baztertu eta jazarri. Izan ere, demokrazia osasuntsu orotan egon liteke desadostasuna eta konponbideak akordio bidez lortzen dira.

Pasibotasun ikaragarria antzematen dut partaide naizen erakundeetan, onartezina eta lo-

tsagarria, dudarik gabe. Militantzia pasiboak bidegabekeriaren eta gehiegikeria edo abusuaren gaizkide egiten gaitu. Biktimak gure babes eta laguntza behar ditu eta baztertzan badugu bere sufrimendu, frustrazio eta bakardade sentimendua betikotu egingo zaizkio. Amildegirako bidea errazten ari gatzaizkio. Normala al da? Biktimak eskale "mouan" ibili behar al du? Ez.

Talde bateko bazkide edo partaide izateak eginkizun eta erantzukizunak nork bere gain hartzea eskatzen du. Are gehiago, ordezkari-hautagai izanez gero. Hartutako konpromisua onartu eta injustizien aurrean gizar-teak duen sedazio-egoera gainditu egin behar dugu. Arazoen konponbidea ez da ezusteko gertaera-kateamenduaren ondorio, bidezkoa ez baitator **laissez faire**-arekin bat. Hori dela eta, militantzia aktiboan jardun be-

Gure helburu bakarra argazkietan agertu eta parean jarritako edozein dokumentu sinatzea bada, beste ezertan bustitzera ausartu gabe... Ez al da duinagoa postu horri uko egitea?

har dugu, ekintza orok baitakar erreakzio bat. Botere-abusua ezabatzea ez da urgentzia bat bakarrik, emergentzia bat baizik eta beraz, denok hartu behar dugu parte helburu hau beteko badugu.

Gure helburu bakarra argazkietan agertu eta parean jarritako edozein dokumentu sinatzea bada, beste ezertan bustitzera ausartu gabe, nola onartuko dugu ordezkari edo delegatu lana? Ez al da duinagoa postu horri uko egitea? Erabakitze eskumena dutenen pasibotasuna kaltegarria da erakunde osoarentzat.

Ez dago inor ezinbestekoa denik. Kantu batek dioen bezala, azken finean erakundeek eta ekintzek iraun egiten dute. Jendea, ordea, iragankorra da. Etorriko direnek jarraipena emango diete obrei eta bitzta ez da aldatuko. ■

## 'AUTOSTOPA'



Bittor Madina

**O**rain berrogei eta hamar bat urte, 'autostop' egitea modan jarri zitzaigun Europa osoan. Dohainik bidaiatzeko modu bat zen. Oñaitin, 'Kalezarra' eta 'Bidaurreta' ziren ateratzeko lekuak. Besoa eta eskuineko behatz lodia luzatuta, bidetik zetorren kotxedun bat bertan gelditzeko eta gu hartzeakoaren keinua zen. Hasierako urte haietan, gehienbat ondoko herrietara edo urrutirago joateko gazteen ohitura bihurtu zen 'auto-stopa' 'Dyane', '4 - 4', 'Seiscientos', 'Seat 750' edo gehienez 'Dauphine' markako kotxeak ikusten genituen, mesede eske behatza luzatzen genuenean. Herri batetik bestera edo kilometro askoko ibilbidea egiteko asmorik izaten bagenuen, oporetan bereziki, bide ertzean jarri

eta bihotz oneko gidaria noiz gelditzen zitzaigun zai egoten ginen. Norbait gelditu ondoren, barrua poztuta, hasierako lotsa hitzegitearekin uxatzen genuen.

Denok ditugu oroitzapen on eta ez hain onak.. Oroitzapenak opari magikoak direnez sarritan bihotzeko ordenagailutik sentipenen pantailara autostopean izan nuen ezusteko gertaera zoragarri bat ateratzen dut. Kontatzerakoan, gustora sentitzen naiz.

1972.urtea zen. Frantziako gaztetxoekin udalekuetan monitorea izateko hamabost eguneko ikastaroa egitera abiatu nintzen trenez Nantes ondoko 'Beaupreau' herrira. Titulua lortu ondoren, itsasaldeko 'Pornic' herrian 'Colonie de vacances'ko gaztetxoekin hilabetez lana egin nuen. Bukatu ondoren, Paris ezagutzera "stopez" joatea erabaki nuen. Laurehun bat kilometroko bidaia? Gizakume batek hartu ninduen. Bide luzean, elkarrizketa eta solasaldi ona egin ondoren eta Paris begibis-

tan genuela lo egiteko tokirik ba ote nuen galdetu zidan. Ezetza jaso ondoren, bere etxera joatea gonbidatu ninduen. Etxeko giltza eta gela bat eskaini zidan egun batzuetarako. Zur eta lur eta aho zabalik gelditu nintzen. Hurrengo egunetik aurrera, egunez Paris ezagutu eta iluntzean oparitutako kaiola goxora sartzen nintzen. Horrela, bost bat egun igaro nituen bertan.

Esperientzia eder horrek izan du aurrerantzean bere eragina nigan: kotxea erosi nuenetik, "Ez da edozein hartu behar", "Badago arriskua eta ez fidatu edozeinekin" eta halako mesfidantzak baztertuz 'autostop' egin didan edonor hartu eta hartzen dut beti.

Gaur egun, egia da, 'autostop' egiteko ohitura ia galduta dago. Baina oraindik gidatzerakoan edo 'kopiloto' noanean leku konkretu batzuetan begiratzen dut norbait autoestop eske ote dabilen. ■



1960 urte inguruan, Olabarrietako auzo barrenian transformadorea ifintteko traban eguen haritza bota zaneko fotografia honetan, honako lagunak agiri dira:

**Goixan**, ezkerretik eskumara: Santiago Zubia (Legarrekua), Bernabe Belategi (Tiruenekua), Jose Zubia (Muñokua) eta Jenaro Aizpeurrutia (Errementarikua).

**Behian**: Leandro Ugarte (Simonenekua) eta Sebastian Orueta (Santzakua)

# BASOGINTZAIA

## herriko sektore ekonomiko garrantzitsua (2)

© ERREPORTAJIA ©  
ROBERTO ALTUNA ERLE

**A**urreko gizaldixan basogintzaia, duda barik, herriko motor ekonomiko garrantzitsua izan zan, haren bueltan makiña bat jente mobiu izan dalako: baso-mutillak, era guztietako basoko lanak egiñaz; karreteruak, egur-karriuan; zerrarixak eta arotzak, egurra lantzeen; kamioneruak, herrittik kanpora materiala eruaten eta bihar zana ekarten, eta abar, eta abar.

Garai eta langintza honen barri gehixago izateko hiru lekukorekin egon gara: zahartzarora arte Artxubi baserrixan (Olabarrieta) bizi izan dan Antoneneko Pako Idigoras zerrarixarekin, Bixaingo (Murgixa) Joxe Inza karreteruarekin eta Erbiñeko (Larraña) Joxe Bikuña kapatazarekin.

Basogintzaiaren prozesua nundik hasten dan ikusteko, Pakok kontau dosku basuan piñu-koskolak batu, etxera eruan eta ogixa egitteko labian sartzen zittuala, berotuaz igartu ondoren, piñu-hazixak etarateko. Eta isuskixarekin ondo batu

eta gero, basuan erein eta sabixak edo mintegixak egitten zittuala, handik piñu-landarak etarateko. Behin landarak etarata, berriz basora fan eta landaketa barrixak egittiarri ekitten otsala. Halaxe, urtien puruz, ondo kasu egindda, baso ederrak hazi zittuala.

### KARRETEROTZAIAN ETA ZERRAGIÑAN

Bizi guztian baso-lanetan ibillittako beste lagun bat Bixaingo Joxe dogu. 1941ian, hamabost urterekin, hasi zan lanian Zakariasenian (Aiaustu –Olabarrieta– baserri onduan egon zan zerran) eta han ibilli zan soldaduskara fan arte; tartian, hamalau hillabete egin zittuan Erretxingo (Olabarrieta) zerran. Joxek dixuenez, gerra ostian Iberduerok astian hiru gabetan bakarrik emuten eben inddarra zerria martxan ifintteko; horregatik, egunez basuan eta gabaz zerran egitten eben lan. Karreterotzaiaren be ibiltten zan, gehixenetan Aloña

azpiko eta Satui mendiko basuetan, baiña urriñago fatia be tokaitten xakon hurrago lanik topaitten ez ebenian. Halaxe, kontaitten dau bere irixakin Udana errekaraiño, hau da, Brinkolako bidekurtzeraiño be fanda daguela palazianuaren, Oñatiko Lazarragarren, basotik egurra karraittera.

### KAPATAZ LANAK

Baso mundua barru-barrutik ezagututako hirugarren laguna Erbiñeko Joxe dogu, larogeita zortzi urterekin, orainddiok be, buru ona eta memorixa harrigarrixaren jabe dana. Hamabost edo hamasei urte zittuala basuan hasi zan lanian beste bi lagunekin, era guztietako lanak egitten: piñu botaten, baso garbiketaren, plantaziño barrixak egitten eta abar. Orduan bizimodua oso karu eguela dixo, diru gutxi irabazten zan eta artikulua oso karu ei eguen. Esaterako, basuan hasi ziranian, ilbaltzeko ferixa egun batian hiru lagunok atxur bana erosi euen,



**Pako Idigoras**

» Basuan  
piñu-koskolak  
batu eta  
labian igarten  
gittuan piñu-hazixak  
atarateko



**Joxe Inza (\*)**

» Egunez  
basuan eta  
gabaz zerran  
egitten geben lan



**Joxe Bikuña**

» Eratan,  
nere kargura  
berrogeita sei  
langille be izan  
nittuan



(\*) Oñatiko azkenengo karreterua edo itzaiña

bakoitzagatik hogeta lau pezeta pagauta, hau da, egun bateko jornala, hogeta lau pezeta irabazten zan-eta egunian. Hortaz, egun bateko lanak atxur baten prezia egiten eben orduan. Gaurko egunian, berriz, egun bateko jornalarekin hamar atxur baiño gehixago erosiko dirala dixosku Joxek. Hortxe aldia!

1953-1954an Ubao parian hasi eta hortik Zegama arteko baso danak pasau zittuan Joxek lanian. Eratan, bere kargura berrogeita sei langille be izan zittuan, bertako eta kanpoko jentia, parte naparra. Sasue hartan herriko fabrikak, Fundiziñuak eta Garaiñenak esaterako, materiala erosteko kupua ekuain eta, beste fabrika haundixaguai kupo hori salduta, diru gehixago irabazten euen eurak lana egindda baiño; horregatik, langilliak sobran eukitten zittuain. Egoera hori balixauaz, Joxe lantegi horreittara faten zan eta egun batzuetarako langilliak eruaten zittuen, enkargauak ametiu ondoren.

GMC kamioiak (jemeziak) etorri eta gero be, Joxe bera ibilli zan bi kuadrilla gaillegorekin basoko pistak egitten jemeziendako, artian eskabadorak etorri barik egozelako. Orduan, pikatxoiaz, palaz eta atxurraz egitten zan lana, eta haitz gogorra topaitten zan lekuan barrenua sartu eta tirua egin; bestela, gaiñetiko dana eskuz. Sobraitzen zan dinamitia hurrengo egunian kuartelian entregau bihar izaten zan. Aittatutako gaillego kuadrillaiari lana destajura emuten xaten, alimentua nagusixaren kontura eta bertara eruanda, eta eurak basuan



Baso-mutil kuadrilla bat goixan, eta basogintzaian ebalten ziran erremintak behian



etxabolatxua egin eta han bizi izaten ziran. Holaxe egon ziran, bai hemengo basuetan, bai Brinkola aldia be.

Langille hareik atxurraz eginddako pistak geruago zabaldu ziran eskabadorakin jemeziak samurrago ibiltteko. San Jurgittik Zegama aldera arte irixakin eta burdixakin ibiltteko oso burdibide txarrak egoenez, dana tarraska ekarten euen. Irixak ibiltteko hain bide eskasak egonda, paraje

horreittan manduakin egitten zan lan asko. Arantzazu aldia be bai, Bellotzan-eta; manduak betik Sindikan egoten ziran. Mandua ikaragarri ebali zan orduan hemengo mendixetan. Karreteruak ibilli ziran mendi baju honeittan, zerretara egurra ekarten, eta mandua, berriz, goiko basuetan. Aitzondo aldia, Jarondo aldia, hor dana manduakin ibiltten zan. Su-egurretarako bihar zana eta egur-ikatza, dana manduetan karraitten zan. Egur haundixak ez, horreik irixakin. Egurra –haritz-txaria– panaderixetarako, eta ikatza, fabriketarako. Oñatiko basuetan ibilli ziran bi anae, Tomas eta Fakin, naparrak, Lizarra aldekuak, eta hareik dozena bat mando baekuain, eta, artian, kriaduak.

Basora faten ziranian, atxurra, aizkoria, trontzia eta bazkarixa be bai eruaten euen aldia, eta edonora fateko ordubeteko fanaldixa izaten zan gutxienez, aittatutako danak bizkarrian hartuta. Jateko, berriz, arrautza paria, txorizo muturra, edo baserriko gauzia izaten zan, eta haretxekin eguna pasaitten zan. Atxurragaz piñu-hondua garbittu, aizkoriagaz epaia jo eta trontziagaz ebagi egitten zan arbolia.

Kuadrillak ibiltten ziran basuan, Arantzazun, Araotzen eta Brinkolan be bai. Lana betik kuadrillan egitten zan. Asko eta asko naparrak izaten ziran, Etxarri Aranaz ingurukuak-eta. Urte hasieran Etxarri Aranazera, ferixara, faten ziran mutillak kontrataittera, eta han urterako zer asmo egozen ikusi eta kontratuak berbaaketan ziran. ■

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIETAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

Aran  
Hernández

Zure ETXEA eguneratu gutxieneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua eratzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## HAUR ETA GAZTERIAREN INGURUAN ...

**#sormendirulaguntzak** - Gazte elkarteen sustapenerako, eta musika taldeen CD grabazioetarako, diru-laguntzen bigarren epealdia urriaren 15etik azaroaren 10era izango da!

**#emantzipaziodirulaguntzak** - Emantzipazio diru-laguntzak eskatzeko epea urriaren 11an bukatzen da, arratsaldeko 14:00etan, beraz kontuz eta denboraz ibili!!

**#igandemusikalak** – Adi musikazale, Gaztelekuan igande eguerdietan programatzen jarraituko dugu! Musika berezi ezberdinak dastatzeko aukera izango da!

**#igandegari** – Lehenengo igandean, urriaren 13an, Gariren kontzertu emanaldia izango dugu.

**#udabidai** – Aurreko urteetan Lisboa edo Menorkako ametsak bete dituzte. Aurten ere Topalekuko Gazteak 2020ko udarari begira lanean!

**#ibarra** – Ibarako jolas gunea dagoeneko martxan dago, uztailean Parkour eremua bukatu genuen bertan, eta dagoeneko gunea osatuta eta funtzionamenduan dago. Tirolina, skate, parkour eta gune lasaia dago bertan, gazteok aprobetxatu!!

**#ibarradina** – Gune hau 8 urtetik gorakoentzat da.

**#arimengaua** – Gurekin arratsalde beldurgarria pasatzeko prest? Felix a etorriko da berriz?

**#ongietorri festa** – egingo dugu urriaren 18an Gaztelekuko kuboko txikienentzat, LH3koentzat!

**#xake25** – Aurten ere Gaztelekuko xake txapelketa izango da udazkenean, eta honekin 25 urte jarraian goiaz xakea bultzatzen... mende laurdena ospatuko dugu!!

**#ludotekaobretan** – Denboraldi berria hasi dugu ludotekan, baina oraindik Gaztelekuko Sotoan gaude gure Ludotekako obrak amaitu arte.

**#ludotekainagurazioa**. Lizaurreko ohiko tokira bueltatzen garenean behar den bezala anuntziatuko da, eta inaugurazio polit eta txukun bat antolatuko dugu guztiontzat.

**#sotoa**. Ludotekak bertan jarraitu bitartean Soto bezala itxita egongo da. Berrito zabaltzen dugunean gogoratu: gurasoen ardura dela bertako arauak betearaztea.

**#erasmus+** - Europako beste herrialde bateko 17-18 urtetako gazteekin elkartruke bat garatzen gabilta, aniztasuna sustatzeko asmoz.

**#oihalakrobaziak** – Erne, gai hau udazken honetan garatzeko asmoa daukagu, eta erakustaldiren bat antolatuko dugu.

**#bizibiziak** – Gaztetxoekin elkarlanean zume biziak landatuz naturarekin jolastuko gara.

**AGENDA:** 19.10.13 Gari & Maldanbera taldeen kontzertua gaztelekuan (12:30). Aurrealmenta: 5€. | 19.10.18 3. Mailakoentzat Ongi Etorri Festa kuboan. | 19.10.31 Arimen eguna gaztelekuan (17:00).

Urriak 11 arte, emantzipaziorako diru laguntzak udaletxean aurkezteko epea. Bestalde, urriaren 15etik azaroaren 10era bitartean, sormenerako diru laguntzak aurkeztu ahal izango dira udaletxean.



## Aranguren aita-emeak Euskal Ligako txapeldun

Espainiako Kopa ere irabazi dute goitibeheretan

**GOITIBEHERAK.** Ioritzeta-Gotzon Aranguren aita-emeek Goitibeheren Euskal Liga irabazi dute, pneumatika kategorian. Ioritz gazteak (16 urte) hiru urte daramatza goitibeheretan lehiatzen, baina aurten kopiloturik aurkitu ezinik zebilenez, Gotzon aitak bete du lekua, eta primeran elkar hartu dute, bistan denez.

Euskal Ligan dauden 11 proba puntuagarrietatik 4 irabazi dituzte (Etxebarri, Alegia, Donostia eta Galdakao) eta hirutan bigarren sailkatu dira, erregularitasun handia erakutsiz.

Gainera, Espainiako Kopako bi proba puntuagarritan ere (Legazpi eta Burgos) parte hartu dute, eta bertan batutako puntuiei esker Espainiako Kopa ere irabazi dute Arangurentarrek.



## Pico de la Rioja mendira irteera

**MENDIA.** Aloña Mendik urrirako antolatu duen irteera Errioxara izango da. Valvanera monasterioan abiatuta, Sierra de la Demanda mendikateko Pico de la Rioja (1563m.) igoko dute, Anguiano herrian amaitzeko Goitik bista paregabeek gozatzeko aukera egongo da (Errioxako lautada alde batera, eta San Lorenzo mendia bestera) eta ibilbidean zehar pagadi ikusgarriak zeharkatuko dituzte. Zailtasunik gabeko ibilaldia da (15,2km / 650m+). Irteera, goizeko 7etan, postetxe parean. Izena emateko azken eguna: urriak 17, Aloña tabernan edo [alonamendi.mendi@gmail.com](mailto:alonamendi.mendi@gmail.com). Prezioa: 10€.



## Uribarri eta Zabaleta Kilometro bertikaleko podiumean

**MENDI  
LASTERKETAK.**

Maite Zabaletak eta Ainara Uribarrik lan bikaina egin zuten irailaren 14an jokatu zen Euskal Herriko kilometro bertikaleko txapelketan. Zabaleta azpitxapelduna izan zen senior mailan, eta Uribarri txapeldun promesa mailan.



## Laugarren txapela Etxegoien eta 'Gaua'rentzat

**TXAKUR TXAPELKETA.**

Donamartiriko (Behe Nafarroa) Gilles Etxegoien artzainak eta 'Gaua' txakurrak irabazi dute aurten ere nazioarteko artzain txakurren txapelketa, azken bost edizioetan lortzen duten laugarrena. Miguel Alonso, Mallorkako txapelduna eta Fidel Alonsok osatu zuten podiuma. Antolakuntzak Jose Luis Madinabeitia oñatiarra ere omendu zuen, artzaintzari eskainitako bitzta eskertuz.



## Tatiegi-Irizar eta Mireia-Ixone nagusi



**PILOTA.** Irailaren 28an jokatu ziren Txosna batzordeak eta Aloña Mendik antolatzen duten Herriko Pilota Txapelketako finalak. Emakumezkoetan **Mireia-Ixone** nagusitu ziren 22-6 **Jone-Mirenen** aurka, eta gizonezkoetan **Tatiegi-Irizar** irabazle 22-13 **Amilleta-Zumalderen** aurka.

**ETXiAN**  
Inmobiliaria

Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60  
[etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)

[www.etxian.net](http://www.etxian.net)

 carpintería  
**GARIBAI**  
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)


# Beste kirol taldeetako egungo errealitatea

Pasaden hilean egindako erreportaiari segida emanez, oraingo honetan, saskibaloia eta eskubaloia jokalaririk batzuen egungo errealitateaz hitz egin nahi dizuegu. Futbolekin bezala, aurrez aipaturiko bi kirol hauetan ere, hainbat herritar ari dira eta, kanpoko taldeetan jokatzen. Ezagutu ditzagun.



**Naroa Garai Markuleta**  
17 urte  
Araski -Ointxe 



**Jessica Louro Ferreira**  
17 urte  
Ointxe 



**Oier Inda Hernandez**  
11 urte  
Ointxe 

» Gasteizko Araski eta Arrasateko Ointxe klubek osatutako taldean ari da Naroa, Junior mailako Euskal Ligan. Tarteka, Araskiren bigarren taldearekin ere entrenatzen du eta aurtengoa bertan 1. maila nazionalan debuta egiteko aukera izan du. Espainiako txapelketarako sialkatzea da helburua, eta, pertsonalki, hobetzen jarraitzea.

» Arrasateko Ointxe taldean ari da Jessica, Junior mailako errendimenduko mailan. Oñatin talderik ez zegoela ikusita jo zuen Arrasatera, saskibaloiaz disfrutatzen jarraitzeko asmoz, eta 2. urtea egingo du aurtengoa. Talde bezala, ahalik eta partidu gehien irabaztea da helburua, baina, batez ere, ondo pasatzea eta gustuko duen kirolaz gozatzen jarraitzea.

» Arrasateko Ointxe taldean ari da Oier, Infantil mailako errendimenduko taldean, adinez alebina bada ere. Gipuzkoa eta Euskadiko selekzioetan ere jokatu ohi du, eta maila oso polita daukala ikusita, Aloña Mendiko arduradunekin adostu dute mutikoak Arrasaten jokatzea, bere progresioarekin jarraitzeko aukera gehiago izango duelakoan.

# 3

*txantxiak jokatzen dute Arrasateko Ointxe klubeko kategoria ezberdinetan*

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

NI  
moda

## MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxa: 943 71 62 40





**Kepa Zelaia Bolinaga**  
26 urte  
Ford M. Arrasate



**Miren Ugarte Guridi**  
23 urte  
Sant Joan Despi



**Josu Arenaza Bermejo**  
22 urte  
Balonmano Romo



**Amaia Trojaola Arkauz**  
21 urte  
Virgen de Europa

» Motibazio eta erronka berrien bila jo zuen Kepak Arrasatera, eta laugarren denboraldiari ekingo dio bertan. Iaz dezente berritu eta gaztetu zen taldea eta, beraz, mailan (Euskadiko txapelketa) egonkortzea eta, ahal dela, goiko postuetan sartzea da helburua. Arlo pertsonalean, lagun arteko giroaz eta gustuko duen kirolaz disfrutatzen eta hobetzen jarraitzea.

» Ikasketak egitera joan zen Bartzelonara duela lau urte, eta orduraz geroztik ari da Sant Joan Despi taldean, Kataluniako 1. mailan. Une honetan belauneko lesio larri bategatik (meniskoa eta lotailu gurutzatua) errekupeztatzen ari da, baina urtaririla edo otsailerako berriz jokatzen hasteko itxaropena du, lau urteko etapa honi kantxan agur esan ahal izateko.

» Duela bost urte hasi zen Bilbon ikasten, eta Erromoko (Getxo) taldearekin entrenatzen zuen, gero Aloñarekin jokatzeko. Baina duela hiru urte bertan jokatzeko aukera eskaini zioten, 1. maila nazionalean eta han dihardu atezain oñatiarrak. Oso gustura ari da, esperientzia berriak bizitzen. Irailean, adibidez, Serbian izan dira aurrendenboraldiko *stage* bat egiten.

» Madrilen dabil Amaia, ikasketak egitearekin batera, gustuko kirola praktikatzeko. Mostoleseko taldean bi urtez aritu ostean, iaz Boadilla del Monte herriko Virgen de Europa taldean hasi zen, eta bertan jokatuko du aurten ere, liga nazionalean. Hasieran arraroa egiten zitzaion entrenatzailearen agindu denak gazteleraz entzutea, baina ohitu da, eta oso gustura dabil.



**Alaitz Lazkanoiturburu**  
19 urte  
Pulpo



**Yune Bermejo Segovia**  
18 urte  
Bera Bera



**Aimar Yarza Zuazola**  
17 urte  
Elgoibar

» Duela hiru urte hasi zen Zumaiako taldean jokatzen, baina iaz geldi eman zuen ia urte osoa belauneko lesio larri baten ondorioz. Zorionez, entrenatzen hasita dago berriz, eta senior mailako Pulpo taldean ariko da territorial mailan. Sortu berria den taldea izanik, mailaz igotzen joatea da helburua, eta, pertsonalki, lehengo joko mailara bueltatzea.

» Aurreko bi denboraldiak Elgoibarren egin ostean, aurten Donostiako Bera Berako bigarren taldean ariko da atezain oñatiarra, Euskal Ligan. Elgoibarreko bi urteak oso aberatsak izan ziren, eta Bera Berara iritsi berria bada ere, oso gustura dago bertan. Zilarrezko Ohorezko mailara igotzea da helburua, eta dena ematea eta ikasten jarraitzea Yunereana.

» Bigarren denboraldiari ekingo dio Elgoibarko gazte mailako taldean, Euskal Ligan. Esperientzia berriak bizi eta bere burua probatzeko asmoz joan zen iaz, bertako entrenatzailearen deiari erantzunez, eta oso pozik ari da bertan; jokoan eta konfiantza mailan ere gora egin duela uste du. Ahalik eta goren sailkatu eta disfrutatzen jarraitzea da helburua.

7

oñatiar ari dira estatu osoan zehar sakabanatuta eskubaloian jokatzen

# BIBLIOTEKAREN EGUNA

URRIAK 24

Liburutegien nazioarteko eguna ospatzen da urriaren 24an, eta horren harira ekitaldi sorta antolatu du udal liburutegiak



## ITZAL-TITEREEN LABORATEGIA

URRIAK 24, OSTIRALA (17:30)

Zurrunka Teatro taldeak itzal-titereen inguruko laborategi didaktikoa eskainiko du, hurrei zuzenduta.

Munduko antzerki mota zaharrene-takoa da 'itzal antzerkia'. Litekeena da kobazuloetan suaren argiak sortzen zituen itzalekin hasi izana jolasean lehen gizakiak. Gerora mundu osora zabaldu zen teknika da, eta, bereziki, Txina, Indonesia, India, Turkia eta Grezian mantendu da.

Gaur egun itzalek gero eta harrera hobea dute antzerki eta ikuskizunen munduan. Eta jadanik haurren heziketa prozesuan berezko balioa ematen hasi zaio. Haurren irudimena, jolasa eta sormena lantzeaz gain, bolumenak, geometria eta espazioaren kontzientzia lantzeko aukera ezin hobea da.

Laborategi didaktiko eta dibertigarri honetan, hurrek, beren kabuz, material erraz eta erabilgarriez euren elementuak sortuko dituzte. Ondoren, oihalaren atzean inprobisatu eta esperimintatzeko aukera izango dute.

7 urtetik gorako hurrei zuzenduta. Liburutegian eman behar da izena.



## JAVIER CORCOBADO SAIO LINBIKOA

URRIAK 25, OSTIRALA (19:00)

Duela bi urte hasi zen udal liburutegia saio linbikoak antolatzen. Literatura, musika eta emozioak uztartzen dituzten kontzertu bereziak dira. Musikariak, formatu akustikoan beti ere, hainbat kanta abesten ditu, gizakiengan oinarritzeko diren emozioak eragiteko: poztasuna, tristezia, haserrea, beldurra, nahigabea... Aldi berean, musikariak bere ibilbidean zehar izan dituen erreferente literario eta musikalak partekatzen ditu entzuleekin.

Oraingo honetan Javier Corcobado (Frankfurt, Alemania, 1963) musikari eta poeta izango da artista gonbidatua. Etorkinen semea, Madrilen hazi zen eta 1980ko hamarkadan ekin zion musika ibilbideari *429 Engaños* taldean. *Mar otra vez* eta *Demonios tus ojos* taldeetan ibili ostean, 1989an kaleratu zuen bere bakarkako lehen diskoa (*Agrio Beso*) eta baita poema liburua ere (*Chatarra de Sangre y Cielo*). Gerora, hogeitabat disko eta hainbat olerki liburu eta nobela plazaratu ditu. Ernegazioaren musikaria eta poetatzat jo izan du kritikak, estatu mailako *underground*-aren printzea. Gaur egun Errigoitin (Bizkaia) bizi da.

## OSTEGUN KONTALARIAK IPIUIN KONTAKETA SAIOA

URRIAK 31 (18:00)

Lur Kortak 3-5 urte arteko hurrei zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko du. Gonbidapenak liburutegian jaso behar dira urriaren 21etik aurrera.



## BISITAK HAUR LIBURUTEGIRA

URRIAK 23, 24 ETA 25

Haur Liburutegia ezagutzeko aukera izango dute 4 urteko hurrek. Eskola orduetan egingo dituzte bisita gidatuak, 'Aurorita Beti Polita'-k (Lur Korta) dinamizatuta.

## IRAKURLE TALDEAK ETA IDAZKETA LANTEGIA ABIAN

Joxe Mari Iturraldekin dinamizatzen duen **Idazketa Lantegia** urriaren 15 eta 29an izango ditu ikasturte honetako aurreneko bi saioak. Denera 10 izango dira.

**Tertulixan** irakurle taldeei dagokienez, ikasturte honetan **gatzelerazko bi talde** osatu dira eta urriaren 22an izango dute aurreneko saioa (17:00 eta 18:45), *Las chicas* (Emma Cline) nobelaren inguruan, Iván Repilak dinamizatuta.

**Euskarazko Tertulixan** taldeak urriaren 30an (18:30) izango du lehenengo saioa, *Neguko argiak* (Irati Elorrieta) liburuaren inguruan, Yurre Ugartek gidatuta.

Bestalde, Silvina Fondrak gidatzen duen **Psikologiako irakurle taldea** azaroaren 5ean jarriko da martxan



ikuspuntua

# Liburutegiak beharrezkoak al dira?

## Kultura, komunitatea, informazioa eta memoria gizarte aldakor honetan

Arantzasu Ibarrondo, udal liburutegiko zuzendaria



Liburutegiak eta informazioa kudeatzen duten profesionalak hausnarketa sakon batean ari gara azkenaldian. Informazioaren teknologiak eta erabiltzaileen ohiturak etengabe aldatzen ari diren garaiotan, liburutegien etorkizuna kolokan jartzen da behin eta berriro. Herritarrak, tradizioz, liburutegietara jo izan du informazio bila edota aisialdirako liburuak, pelikulak eta diskoak hartzera. Baina, gaur egun, interneteko konexioa etxean, tabernan, kalean, edozein lekutan eskura-eskura dugunean, zertarako joan liburutegira? Zer funtzio dute liburutegiek gizarte digitalizatu honetan?

Liburutegiaren bilakaera etengabea izan da historian zehar. Lehenengo taulatxo eta papiroetatik hasi eta gaur egungo plataforma digitaletaraino, behin eta berriro birformulatu beharra izan du. Horri esker, liburutegia apalez eta liburuz betetako eraikin soila baino gehiago da. Liburutegiaren izaera haratago doa.

Liburutegiak eta askatasuna –irakurtzeko askatasuna, ideien askatasuna, komunikatzeko askatasuna– estuki loturik dauden kontzeptuak dira. Liburutegien eta heziketaren arteko lotura ere estua da –personeren heziketa-prozesua ez da bukatzen eskola edo unibertsitatea amaitzen denean–. Eta zer esanik ez, liburutegiak bat datoz aisialdiarekin, ideien garapenarekin eta babesleku izatearekin!

Kultura ulertzeko modu berezi hori dugulako irauin dute liburutegiek milaka urte gure artean. Gure ustez, komunitate informatu bat izatea, kritikoa eta memoria baloratzen duena, kultura da. Egunero-egunero, horren alde egiten dugu lan. Gehienetan lan isila da. Komunitateari eskaintzen dizkiogun tresnek, hots, liburu, egunkari, aldizkari, pelikula, disko, tertulia, lantegi, interneterako konexio, musika-saio, ipuin-kontaketa eta abarrek, gaur egungo gizartean, ez dute aparteko txinpartarik sortzen, badakigu; baina ez ahaztu gizarte mugimenduetan eta iraultzetan tresna horiek oinarri-oinarriaren egon direla. Mundu berri bat irudikatzen balio izan dute eta aurrerantzean ere horrela izango da.

Gizakiak informazio-iturriak behar ditu etorkizuna irudikatzen, gizartea garatzeko eta norbanakoen jakin-mina asetzeko. Interneten garaian liburutegiek ez dugu informazioaren eskusibitatea, jakina, baina gure zerbitzu xumeak **herritar guztien informaziorako, aisialdirako eta formaziorako eskubidea bermatzen du**. Aukera-berdintasuna ziurtatzen du. Errefuxiatu nahiz ofiziar izan, ume ala zahar, emakume zein gizaseme, ezker edo eskuin, denek dute lekua liburutegian. Irakurtzen duen herria, izan ere, etorkizuna ulertzeko eta kudeatzeko prestatuago dago. Herri informatuagoa, kritikoagoa, irekiagoa eta zoriontsuagoa delako.

Behin, Albert Einsteini zera galdetu zioten: “Zer egin dezakegu gure seme-alabak azkarrek izateko?”. Haren erantzuna sinplea izan zen: “Ipuinak irakuriezazkiezue, eta azkarrenetan azkarrenak izateko ahalik eta ipuin gehien”.

### LIBURUTEGIA DATUTAN

Liburuak:  
**35.167**

Pelikulak:  
**5.419**

Diskoak:  
**2.372**

Aldizkariak:  
**78**

Egunkariak:  
**8**

e-books:  
**17.792**

e-films:  
**2.500**

Bazkideak:  
**7.832**

Urtean zehar  
**55.000**  
bisita inguru!

Urtean zehar  
**25.000**  
dokumentu  
mailegatzeko ditugu

**6** irakurle talde eta  
idazketa lantegi bat  
**100** partaide

caravanas  oñate



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**  
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

[www.caravanasonate.com](http://www.caravanasonate.com)

• **BIZIKLETAK**  
• **ERREMOLKEAK**  
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**  
Otadui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

**GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



**653 70 45 47**  
Oñati

PINTURAS  
**URBIA**  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

**'LURRALDE BERRIAK'** izeneko bere bigarren diskoa grabatu du Iker Martinez de Zuazok (*Latzen, Potemkin, Amonal, Lenao*) eta zuzeneko kontzertu baten bidez aurkeztuko du herrikideen aurrean irailaren 4an, Atzeko Kaleko plazan (19:30).

Aurreko diskoarekin (*Itzalen mundua*, 2017) alderatuz, unibertso musikala zabaldu egin du Ikerrek, orduko *rock-country* lasaitik hasi eta *pop-rock* akustiko ukituko kantu biziagoetara hurbilduz. "Lehen diskoa nahiko iluna izan zen, lasaia, beharbada tristea... nire orduko egoera pertsonala ere halatsua zelako; orain, aldiz, bizitzako beste momentu batean nago, beste modu batera sentitzen naiz, eta hori diskoan islatzen dela uste dut. Aldarte honek musikalki irekiago izatera eraman nau, eta aspalditik egin nahi nituen kantuak sortzera iritsi naiz, rockeroagoak agian, baina melodiari garrantzia emanez beti ere" azaldu digu musikariak.

Gauza ezberdinak frogatu eta bide berriak urratu nahi izan ditu Martinezek disko berriarekin, eta hortik izenburua, *Lurralde Berriak*.

Hamar abesti biltzen ditu lan berriak, sentimenduz hitz egiten dutenak; sentimendu pertsonalez. "Nire diskoek eta nire kantuek orokorrean nitaz hitz egiten dute, modu batera edo bestera. Atzean utzitakoa faltan botatzeaz, etsipenaz, miñaz, maitasunaren ederraz, aurrera egiteaz, askatasunaz, naizenarekin harro egoteaz..."

Andoaingo *Garate* (Iñaki

# Disko berria aurkeztuko du Iker Martinezek zuzenean

'Lurralde berriak' izeneko bere bigarren diskoa aurkeztuko du irailaren 4an Atzeko Kaleko plazan, 19:30etan



Zubia eta Martxel Arkarazo) eta Beasaingo *Pottoko* (Fredí Pelaez) estudioetan grabatu du diskoa, eta musikari ezberdinek parte hartu dute: Joxeba Aranburu (*Bitz, Lenao*) baxuarekin, Jimmy Irizar (*Amonal, Hior Konpon*) bateria eta ahotsarekin; Fredí Pelaez (*Fredí Pelaez Trio, Sorkun...*) teklatuarekin, eta Irene Balzategi ahotsean.

## DISKOA ETA AURKEZPEN BIRA

*Boga* eta *Aker* tabernetan eta Elkar-en dendetan eskuratu ahal izango da diskoa 10€-tan. Internetez ere eskuratu ahal izango da Elkar-en webgunean eta ohiko plataforma digitaletan (*Spotify, itunes, youtube...*). Ikerren sare sozialean ere (*facebook.com/ikermartinezazuazo*) deskargatzeko aukera egongo da.

Disko berria aurkezteko lehen kontzertua herritarren aurrean emango du, esan bezala, irailaren 4an, Atzeko Kaleko plazan (19:30) eta hortik aurrera lan berriaren aurkezpen bira egiteko asmoa du. Hurrengo emanaldia urriaren 18an izango da, Tolosako Bonberenean.

Aurreko diskoarekin bakarka aritu zen Iker, baina oraingoan taldean ariko da. "Alde bakarti bat badaukat, baina, oro har, beti nahiago dut gauzak lagunekin egin. Lehen diskoa egin nuenean ez nekien emaitzarekin gustura geratuko ote nintzen, eta, horregatik, planteatu ere ez nintzen egin talde batekin jotzea, eta hori denboraz planifikatu behar izaten da".

**ZURICH**

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SOKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GERIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77





**ZUZENEKO TALDEA:** Iker Martinez (kitarra eta ahotsa) *Zaldi Herrenak* taldearekin — Iñigo 'Bull' Biain (baxua), Jimmy Irizar (bateria eta ahotsa), Joxeba Aranburu (kitarra) eta Iñigo Ugarte (kitarra eta ahotsa) — ariko dira zuzeneko emanaldietan



*Boga eta Aker*  
tabernetan,  
Elkarren  
dendetan eta  
ohiko plataforma  
digitaletan  
(spotify, itunes,  
facebook...)  
eskuratu ahal  
izango da  
diskoa 10€tan.

Bigarren disko honen aurkezpen biran *Zaldi Herrenak* taldearekin — Iñigo 'Bull' Biain (baxua), Jimmy Irizar (bateria eta ahotsa), Joxeba Aranburu (kitarra) eta Iñigo Ugarte (kitarra eta ahotsa) — ariko dira Iker Martinez zuzeneko emanaldietan).

#### MUSIKARI EMANA

Ibilbide oparoa osatzen ari da Iker Martinez. Latzen-ekin (1994-1999 eta 2007-2008)

maketa bat, bi diska eta zuzeneko DVD-CD bat grabatu zituzten. Ondoren, *Potemkin*-ekin (2003-2006 eta 2008-2010) maketa bat, bi diska eta DVD liburu bat, eta *Amonal*-ekin (2003-2007) zuzeneko DVD bat.

Bere abestiak sortzeaz gain, gaur egun *Lenao*-ko kide ere bada Iker, eta talde honekin (2015-2016 eta 2018-2019) bi diska plazaratu dituzte. ■

## XI. Oñatiko Trikiti Jaialdia

URRIAK 26, ZAPATUA, 17:30ETAN  
SANTA ANA ANTZOKIAN



Parte hartzaileak

- Julen Alonso, Esti Markez eta Eneritz Aulestia
- Eneko Dorronsoro, Itsaso Elizagoien eta Xurxo Nuñez
- Beñat Landa, Xabier Zabale eta Imanol Arizmendi
- Imanol Intxauste eta Andoni Ezkerra
- Edurne Iturbe, Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta
- Eneko eta Iker Etxabe
- Lurdes eta Aitor Alkorta eta Enaitz Alberdi

- Sarrera 12€ (Bizipozen salgai)

- Erreserba bidez egiteko: [lizargarateelkartea@gmail.com](mailto:lizargarateelkartea@gmail.com)

- Ondoren afaria egongo da Pago Uso elkartearen. Aferia 22€

\* Erreserbak eta sarrerak salgai urriaren 10etik aurrera.

Antolatzailea: Lizargarate Trikitizale Elkarte

Laguntzailea: Oñatiko Udala

## Txinparta Bertso Eskolaren ikasturte berria

Urriaren 14ko astean hasiko dira eskolak ematen, astelehenetik ostiralera, talde bakoitza dagokion ordu eta egunetan. Iazko ikasleek zuzenean jasoko dute oharra bertso eskolatik. Interesa duten gainontzekoek ikastetxean bertsolari lantzen duten irakaslearen bitartez jaso dezakete informazio gehiago. Haur-gaztetxoek 3 talde dira abian eta aurten 16 urtetik gorakoei zuzendutako talde bat jarriko da martxan, hasiera batean ostiral iluntzetan izango dena. Argibide gehiago: [txinpartabertsoeskolia@gmail.com](mailto:txinpartabertsoeskolia@gmail.com).

**MAIDER ARREGI final laurdenetara.** Maider Arregi oñatiarra Gipuzkoako txapelketako final 1/4etarako sailkatu da. Final 1/8renetako saio bakarra falta denean, puntuazio altuena lortu duen hamargarren bertsolaria da.

**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia

Ostiral, asteburu  
eta jai egunetan  
baserniko agia,  
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

URRIAK **20**

### Kontzertua

Ataungo Maddi rock taldearen kontzertua **Itturri tabernan, 19:30**



AZAROAK **3**

### Kontzertua

Donsoti Ereski Abesbatza, Oñatiko Musikegunak jardunaldien baitan **Santa Ana, 19:00**

## MUSIKA

**URRIAK 20 / 19:30**  
**MADDI TALDEA**

Maddi Noguera ataundarrak sortutako rock taldea ariko da **Itturri tabernan**.

**URRIAK 25 / 21:30**  
**KLOWN + LEE KORE**

Durango eta Oñatiko *hard core-metal* taldeen kontzertua **Pako tabernan**.

**URRIAK 26 / 17:30**  
**OÑATIKO TRIKITI JAIALDIA**

Lizargarate Trikitizale elkarteak antolatuta. Zazpi talde ariko dira **Santa Anan**.

**AZAROAK 3 / 19:00**  
**DONOSTI ERESKI ABESBATZA**

Oñatiko Musikegunak jardunaldietako lehen kontzertua. Donostiako abesbatzak kantu gregorianoko saioa eskainiko du **Santa Anan**.

## IKASTAROAK

**ARGAZKILARITZAN SAKONTZEN. SORMEN TAILERRA.**

Argazkilaritzan oinarritzko ezagutza duen jendeari

## AGENDA



URRIAK **13**

### GARI ETA MALDANBERA

Gari -Hertzainak- eta Maldanbera taldeak emango diote hasiera igande goizetako kontzertu denboraldiari **Gaztelekuan (12:30) Sarrera 5€**

zuzenduta. Ilunpetan taldeko Ekaitz Zilarmendik eta Itziar Baztarrikak gidatuko dute. Bi bloketan banatuta egongo da: 1. Estudioko argazkilaritza (urriare 15etik urtarrilaren 28ra. 7saio) eta 2. Argazkilaritza sortzailea (otsailaren 12tik ekainaren 2ra. 8 saio). Saiok hamabostean behin izango dira, asteartetan (18:00-20:30), Eltzian. Bloke bat edo biak egiteko aukera egongo da. Ikasturte osorako izen-ematea: 280€; bloke indibiduala: 160 €. Izen-ematea: [ilunpetan@gmail.com](mailto:ilunpetan@gmail.com)

## TAILERRAK

**URRIAK 19 / 10:30-13:30**  
**LANTEGI PEDAGOGIKOA**

Oteizaren apostoluen 50. urteurrenaren harira, 6-12 urteko haurrei zuzenduta: 'Harrizko gorputza, buztienezko arima'. Izen emateko: 943716675 / [info@arantzazuagndiaga.com](mailto:info@arantzazuagndiaga.com). **Gandiaga Topagunean**.

## BISITA GIDATUAK

**URRIAK 19 / 12:00**  
**OTEIZAREN ESTATUARIA**  
Arantzazun ikusgai da goen 'Oteiza eta Arant-

zazuko estatuarria 1950-1969' erakusketara bisita, Elena Martin komisarioak gidatuta. Izena emateko: 943716675 / [info@arantzazuagndiaga.com](mailto:info@arantzazuagndiaga.com). **Gandiaga Topagunean**

## ELKARTASUNA

**URRIAK 25 / 20:00**  
**ELKARTASUN AFARIA**  
Parrokiako Misio taldeak antolatuta, Ginea Konakryn eskolatxo bat eraikitzeke proiektuaren alde. **Bidaurretan**

## PAKE LEKU

**URRIAK 7 / 11:00-13:00**  
**SALDA**  
Errosarixo Bixamon eguna ospatzeko. Doan. **Pake Lekun**

**URRIAK 10 / 17:00**  
**BINGOA**  
Bingo saioa **Pake Lekun**

**URRIAK 18 /**  
**BIDAIA-TXANGOIA**  
Lodosara egun pasa.

**URRIAK 19 /**  
**IBILALDIA**  
Jubilatuena ibilaldia **Oiartzunen**



**TABERNA • JATETXEA**

Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

# FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA






## 'XVI. MENDIA ETA NATURA' ARGAZKI LEHIAKETA

Aloña Mendiko Mendi sailak antolatuta. Bi atal bereiziko dira: 'A' Gizakia mendian (alpinismoa, trekking-a, eskalada, BTT... konpetizioa izan ezik); eta 'B' Mendi ingurunea (paisaiak, mendiak, flora, fauna...).

Partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu sail bakoitzean. Ez dira onartuko aurreko urteetan aurkeztutakoak. Argazkilari bakoitzak 10€-ko kuota ordaindu beharko du.

Partaide bakoitzak sari bakarria irabazi ahal izango du sail bakoitzean. Oñati Saria, bere atalean saririk irabazi ez duen oñatiarren argazki onenarentzat izango da.

Argazkien aurkezpena internet bidez egingo da [www.concursosdigitales.com](http://www.concursosdigitales.com) atariaren bitartez. Argazkiak jpg formatuan aurkeztuko dira, behe (72ppp) eta goi (250ppp) erresoluzioan. Argazkiak aurkezteko azken eguna: urriak 14. Azaroaren 11tik 24ra erakusketa egingo da kultur etxean, aurkeztutako argazki onenekin, eta azaroaren 15ean sari banaketa egingo da kultur etxean (19:00). Lau sari emango dira sail bakoitzean: **1. saria** (500€), **2.saria** (300€), **3.saria** (200€) eta **Oñati saria** (200€).



### Hileko gomendioa

Irakurtzea edo ez irakurtzea, hor dago koska. Jimmy Liaok literaturaren munduak bizi duen aldaketari buruzko hausnarketa zorrotz eta ironikoa aurkezten du. Irakurketa eta liburu-denda txikien gainbehera ditu ardatz. Literaturari eta liburuei omenaldia.

## ZINEA



Zine-kluba: Osteguna (20:00)  
Nagusiak: Ostirala eta larunbata (22:30)  
Igandea (19:30 eta 22:30)  
GAZTETXOAK: Larunbat eta Igandea (17:00)  
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

### Urriak 10 - 14

ZINE KLUBA:  
**Todos lo saben**  
NAGUSIAK:  
**Agur Etxebeste**  
GAZTETXOAK:  
**El rey leon**



### Urriak 24 - 28

ZINE KLUBA:  
**Un amor imposible**  
NAGUSIAK:  
**@buelos**  
GAZTETXOAK:  
**Mascotas-2**



### Urriak 17 - 21

ZINE KLUBA:  
**Un hombre fiel**  
NAGUSIAK:  
**Mientras dure la guerra**  
GAZTETXOAK:  
**Elkano. lehen mundu bira**



### Azaroak 1 - 4

LA TRINCHERA  
INFINITA:  
**Estreinaldia**



Ostiralean, larunbatean, igandean eta astelehenean 19:30 eta 22:30



### FARMAZIA

#### ANDUAGA

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**  
Urriak 4, 14, 15, 23 eta 24. Azaroak 1, 2 eta 3.

#### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**  
Urriak 5, 6, 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27. Azaroak 4 eta 5.

#### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**  
Urriak 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29. Azaroak 6 eta 7.

#### ULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**  
Urriak 2, 3, 11, 12, 13, 21, 22, 30 eta 31.



### MERKATU TXIKIA

#### ETXEBIZITZA ERRENTAN HARTU

Oñatiko bikote gaztea, etxebizitza bila errentan hartzeko. Mesedez deitu 678 003 706 edo 671 242 721 zenbakira .

#### ADINEKO EMAKUMEA ZAINTEKO

pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu: 677425822 edo 695787204 .

#### LOKALAK EDO GELAK ALOKAGA!

Klaseak emateko edo bulego gisa erabiltzeko lokalak edo gelak alokatzen dira. Kale Zaharrean. 652 756 052.

#### IRAKASLEA BEHAR DA

Irakaslea behar da DBH eta BATXILERGOKO ikasleei klaseak emateko, eta 15-18 urte bittarteko ikasleei klase partikularrak emateko. Interesatuak idatzi: [akademiaonati@gmail.com](mailto:akademiaonati@gmail.com).

### ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
  - Lentzeria
  - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



(\*) Itten: arrastua, pistia

&gt;&gt; JAKINGARRIXA

## Baserri izenak (eta 5)

Normala dan moduan, bi hizkuntza alkarren onduan dagozenian, batak bestetik berbak hartzeko joeria egoten da, eta gehixenetan hizkuntza nagusitik txikiñera pasaiten dira berba horreik, mailleguan hartuta, esan ohi danez. Bada, herrixan badittugu baserri batzuk euren izenak erdarazko berbetatik datozenak, baiña hain ondo geureganatu dittugunez, antzik be etxatenak emuten mailleguan hartutakuak diranik. Multzo honetakuak dira: *Tuertokua* (\*Soraluze erdikua), *Pardioskua* (\*Izurategi erdikua), *Konkena* (\*Basaizpe), *Tiruena* (\*Antuena), *Largokua*, *Ditxosuena* (\*Ezkibelgoa), *Barberokua*, *Jardingua*... (\*) izen historikua

*Konkena* (Uribarri)*Pardioskua* (Santxolopeztegi)*Tiruena* (Olabarrieta)*Largokua* (Zañartu)*Ditxosuena* (Zañartu)*Ipentza eta Jardingua* (Zañartu)  
Erretratua, Jose Urzelai

&gt;&gt; EUSKERAZ EGOGI: Txokolateixian ala txokolateixan saltzen daue?

- Plazako **fruterixia** ona da; BAIÑA Naparreneko kantueko **fruterixan** erosi dittut naranjak.
- **Peskaderixia** jentez beteta dago; BAIÑA BMko **peskaderixan** be peska ona topauko dozu.
- **Pelukerixia** zabaldu daue Kale Barrixan; BAIÑA Kale Zaharreko **pelukerixan** izan gara goizian
- Orain **karnizerixia** dagueen lekuan lehen txokolaterixia eguen; BAIÑA zinerako sarrerak **txokolaterixan** saltzen dittue.

Antzeko formulaziñuak komunikabidietan-eta sarritan ebalten diranez, argi ibilli biharra dago akats hori ez egiteko. Hona hemen prentsatik jasotako zenbait adibide:

### OKER:

- Goiena: *Sarrerak dagoeneko salgai daude Txokolateixian bost eurotan.*
- Noticias de Gipuzkoa: *Sarrerak Aloña Mendi, Izarraitz eta Arrano tabernetan eta Txokolateixian salgai daude (20 euro)*
- Diario Vasco: *Ekitaldirako sarrerak atzo jarri ziren salgai Txantxiku Ikastolako idazkaritzan eta Txokolateixian 8 eurotan*
- Udalaren web orrixa: *Sarrerak salgai Txokolateixian eta ganbara.sacatuentrada.es*
- Txantxiku ikastola: *2. mailakoak Txokolateixian. Ekintzailetzako ikasleak joan zen eguaztenean Txokolateixian izan ginen*

### ZUZEN:

- Udalaren web orrixa: *Bazkide Kontzertua Ganbara Abesbatzaren eskutik. Sarrerak salgai Txokolateixan (8€)*



## ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



### Uribarriko *Santamosua*

**E**tzittuan urte asko harrapo, baiña iraun eben denporan **oso estimaua** izan zan, umien artian batez be. Saiatu gara noiz eta zeñien aginduz jaso zan jakitten, baiña eztogu aztarran garbirik atara. Dirudienez, **XX. gizaldiko lehenengo hamarkadatan modutu euen** Uribarriko **Santamosua**, Arantzazurako bide ertzian, eskumakaldian. Izen kurioso hori emuten otsain Aloña azpiko auzotarrak **arrautza itxurako erreka-harriz egindako itturrixari**. Berrogei urtetik gora dakotzuen gehixenok gogoratu zarai irudi horrekin, seguru asko, eta bere inguruan jolas egin be bai akaso.

Txopekua baiño gorago, **Goittikua baserrixaren onduan** eguen. Pare-parian, kamiñuaz bestaldian, **itturri normalago bat** eukan, oraindiok be ura darixola jarraiketan dauena. Errepidiaren azpittik pasaitten diran itturri horren ur sobrantiak aprobetxaitten zittuan beste itturri artistiko horrek, ur-txorrotadia **Santamosuaren** agotik botaten ebela. Itturburua goratxuago ei dago. Aloña mendikiaren barruan pillaketan dan **geruza freatiko ikaragarrittik, ura erruz kanporaketan da** malda horreittako hainbat lekutan: adibidez, **Troska** eta **Antzuabarren** Uribarrin, eta **Ubao** nahiz **Urdandietan** Berezao eta Murgixan.

Argazkixan ezkerretan agiri dan baserrixa **Egikua** da; eskuman, berriz, **Txopekoko bolalekua** nahiz sagardaua, bedarra eta abar gordeteko **txabola-bodega modukua** ikusten dira. Kilometro batzuk beherago, futbol-kanpua baiño goratxuago, Uribarriko honen garaikua izango da, ziurrenik, **Azkoagaineko itturrixa be**. Arrautza antzeko erreka-harriz egindakua da; Arantzazuko Amaren irudixa eta **Aloñako iturria** inskripziñua dako erdixan eta bi jarleku luze ezker-eskumatan. Zutik eta osorik egon arren, **untzak eta narrak jabetu** dira itturrixan eta aldamenetan. Nori dagokixo inguru hori garbiketia eta txukunketia?

Gipuzkuako **diputaziñuak**, biharbada, jasotako **Santamosua** erakunde berak botako euen 1980ko hamarkadan, Arantzazurako kamiñua zabalketako obrak burutu ziranian, nunbait. Horrenbestez, **60 urte pasa** egongo zan Uribarri auzuan irudi-itturri berezi hori.

Fotografixia Juan Tijera gaztiak atara eben 1968 aldera; orduan Uribarriko Paterretxen bizi zan. Guri Mila Igartuak eskuratu dosku eta berari zor xaugu argibiderik gehixenak. Pedro Igartua, Mikel Alberdi, Kepa Elortza eta Tomas Igartuak be lagundu doskue. Milla esker danoiri!

Etxea  
dekoratuz  
bizilekua  
sortzen duzu

Dekora Lekun zure **etxea**  
**bizi leku** bat bihurtzen duten  
elementuak bilatzen laguntzen dizugu.